

1903-1937

# ALFREDO
# ESPINOSA

**ERREPUBLIKANO**
BAT EUSKADIREN
ZERBITZURA

**UN REPUBLICANO**
AL SERVICIO
DE EUSKADI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1903-1937

# ALFREDO
# ESPINOSA

**ERREPUBLIKANO**
BAT EUSKADIREN
ZERBITZURA

**UN REPUBLICANO**
AL SERVICIO
DE EUSKADI

**ERAKUSKETAREN KOMISARIOA-COMISARIO DE LA EXPOSICIÓN:** Jon Penche González

**ERAKUSKETAKO FUNTSEN ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA KATALOGOAREN ILUSTRAZIOAK:**
**ENTIDADES COLABORADORAS CON LOS FONDOS DE LA EXPOSICIÓN Y LAS ILUSTRACIONES DEL CATÁLOGO:**

Aranzadi Zientzi Elkartea,
Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Biblioteca Nacional de España.

Bizkaiko Foru Agiritegia,
Archivo Foral de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Liburutegia,
Biblioteca Foral de Bizkaia.

Alfredo Espinosa Oriveren Familia,
Familia de Alfredo Espinosa Orive.

Ernesto Ercoreca Régilen Familia,
Familia de Ernesto Ercoreca Régil.

Pablo Iglesias Fundazioa,
Fundación Pablo Iglesias.

Gernikazarra Historia Taldea

Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua.
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa,
Centro de Documentación sobre el Bombardeo de Gernika.
Fundación Museo de la Paz de Gernika.

Gipuzkoako Artxibo Orokorra,
Archivo General de Gipuzkoa.

GOAZ Museum.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa,
Museo del Nacionalismo Vasco.
Sabino Arana Fundazioa.

Irargi.
Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua,
Centro del Patrimonio Documental de Euskadi.

Mikrofilmazio eta Digitalizazio Laborategia.
Historia Garaikidearen Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea, Laboratorio de Microfilmación y Digitalización.
Departamento de Historia Contemporánea.
Universidad del País Vasco.

Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa,
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.

**ESKERONAK**
**AGRADECIMIENTOS**

Alfredo Espinosa Gómez.

María Victoria Espinosa Gómez.

Mikel Aizpuru Murua.

Ana María Ares Martínez.

Maite Arruti.

Julen Erostegi Esturo.

José Ángel "Txato" Etxaniz.

Leire Jaio Enbeita.

Jimi Jiménez Sánchez.

Roberto Kerexeta.

María José Marinas Camarma.

Cristina Martín.

Marian Moreno.

Tomás Ondarra.

José María Oraá.

Ana Otegi Oterrasagasti.

Juan Carlos Pérez Alonso.

Luis María Sala.

Jon Uriarte.

**TEXTUAK-TEXTOS:**
Katalogoa-Catálogo
@ Jon Penche

Artikuluak-Artículos
@ Jon Penche
@ Anton Erkoreka
@ Antonio Villanueva Edo

**EDIZIOA-EDICIÓN:**
Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco

**KOORDINATZAILEA-COORDINACIÓN:**
Eventia

**LEGE GORDAILUA-DEPOSITO LEGAL:** BI-962/2012

| | | |
|---|---|---|
| Bake gizona gerran.<br>Idoia Mendia.<br>Eusko Jaurlaritzako Justizia eta<br>Herri Administrazioko sailburuak. | 5 | Un hombre de paz en la guerra.<br>Idoia Mendia.<br>Consejera de Justicia y Administración Pública<br>del Gobierno Vasco. |
| Eginkizuna betetzea, bertute.<br>Rafael Bengoa.<br>Eusko Jaurlaritzako Osasun eta<br>Kontsumoko sailburuak. | 7 | La virtud del deber cumplido.<br>Rafael Bengoa.<br>Consejero de Sanidad y Consumo<br>del Gobierno Vasco. |
| Katalogoa:<br>ALFREDO ESPINOSA. 1903-1937<br>Errepublikano bat Euskadiren zerbitzura. | 11 | Catálogo:<br>ALFREDO ESPINOSA. 1903-1937<br>Un republicano al servicio de Euskadi. |
| Alfredo Espinosa eta Euskal Errepublikanismoa.<br>Jon Penche. | 41 | Alfredo Espinosa y el republicanismo vasco.<br>Jon Penche. |
| Euskal sanitatea gerra garaian<br>(1936-1937).<br>Anton Erkoreka. | 47 | La sanidad vasca en tiempo de guerra<br>(1936-1937).<br>Anton Erkoreka. |
| Gorlizko itsas erietxearen ebakuazioa.<br>Espainiako azken gerra zibileko gertaera.<br>Antonio Villanueva Edo. | 55 | La evacuación del sanatorio marino de Górliz.<br>Un episodio de la última guerra civil española.<br>Antonio Villanueva Edo. |
| Iturriak eta Bibliografia | 65 | Fuentes y Bibliografía |

ESPINOSA

IDOIA MENDIA

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURUAK.

CONSEJERA DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEL GOBIERNO VASCO.

# BAKE GIZONA GERRAN

Bi politikari errepublikazale, Ramón María Aldasoro eta Alfredo Espinosa, historiako lehen Eusko Jaurlaritzako kide izan zirenak. Bigarrena, Agirre lehendakariak Osasun sailburu izendatu zuena, bilbotarra zen, sendagile gaztea, higiene eta haurtzaroan espezialista. Bilbo erori eta handik egun gutxira, 1937ko ekainean, frankistek atxilotu egin zuten Espinosa Frantziatik zetorrela lan humanitario batetik, eta baita fusilatu ere. 33 urte zituen. Alarguna, Paquita Gomez, eta bi seme/alaba txiki utzi zituen, Alfredo eta Maria Victoria. Zorigaiztoko gertakari hura izan zenetik 75 urte beteko dira orain.

"Esan gure herriari Eusko Jaurlaritzaren sailburu bat hil dutela hainbeste urtetako borrokan legez irabazitako askatasunak eta konkistak defendatzeagatik. Nire heriotza adibide izango ahal da eta zerbaitetarako balio izango ahal du borroka anker eta izugarri honetan... Historiak guztiok epai gaitzanean, orduan jakingo dute guk ahal genuen guztia egin genuela presoak hil ez zitzaten eta ideia guztiak errespeta zitezen, geurearen guztiz aurkakoak izan arren. Besarkada bat eta beti arte".

# UN HOMBRE DE PAZ EN LA GUERRA

Dos políticos republicanos, Ramón María Aldasoro y Alfredo Espinosa, formaron parte del primer Gobierno Vasco de la historia. El segundo, al que el lehendakari Aguirre nombró consejero de Sanidad, era un joven médico bilbaíno, especialista en higiene infantil. Pocos días después de la caída de Bilbao, en junio de 1937, Espinosa fue apresado por los franquistas cuando regresaba de una misión humanitaria en Francia y fusilado. Tenía 33 años. Dejaba viuda, Paquita Gómez, y dos hijos pequeños, Alfredo y María Victoria. Se cumplen ahora 75 años de aquel trágico episodio.

"Dile a nuestro pueblo que un consejero del Gobierno Vasco muere por defender sus libertades y sus conquistas legítimamente ganadas en tantos años de lucha. Que mi muerte sirva de ejemplo y de algo útil en esta lucha cruel y horrible... Cuando la historia nos juzgue a todos sabrán que nosotros hicimos lo indecible por evitar la muerte a los presos y por conservar el respeto absoluto a toda idea por opuesta que fuere a la nuestra. Te abraza hasta siempre".

Espinosak hil bezperan Agirre lehendakariari idatzi zion gutunetik aterako hitz hauek berez hitz egiten dute sendagile gazte errepublikazale haren kalitate moralaz. Esku hartu zuen Espinosak. Bai horixe!. Euskal autogobernuaren eta errepublikaren legezkotasunaren alde jokatu zuen. Gainera, gizakiaren duintasunaren eta giza eskubideekiko errespetuaren alde jarri zen basakeria haren erdian, lekuko izan zen bidegabekeriak zuzenduz eta apetaren araberako pertsekuzioak saihestuz. 1937ko urtarrilaren 4an, Bilboko espetxeak eraso zituzten gertakari triste haren ondoren, hainbat sendagile eta anbulantziarekin joan zen Espinosa espetxeetara zaurituei lagundu eta erietxeetara eramateko.

Alberto Onaindiaren gure gerra zibilaren inguruko obra klasikoaren izena maileguz hartuta, gaur egun esan dezakegu "bake gizona gerran" izan zela Espinosa. Ahalegin guztiak egin zituen gatazka hura leuntzeko eta biktimarik ez izateko kosta ahala kosta. Euskadiko Gurutze Gorria sortu zuen, haurren atzerriratzeak ikuskatu zituen, iheslariez arduratu zen, milizianoen umezurtzez, haurtzaindegien, haur kolonien eta ongintzako etxe guztien egoeraz. Saiatu zen ahalik eta jende gehien toki seguruan ipintzen eta atxilotuen trukearen defendatzaile irmoa izan zen.

Eusko Jaurlaritzak beste batzuetan ere izan du gogoan Espinosa, baina ulertezina izan arren, oraindik ez dugu lortu haren aintzat hartze publikoa aho batez edo gehiengoak onartzea. Gerra zibila izan zen zorigaitz kolektibo haren erdian, bere egitekoa betetzen jakin zuen eta Euskadiri eta Errepublikari laguntzeagatik prezio handia ordaindu behar izan zuen gizon, politikari eta sailburuari zor zaion omenaldiari lagundu nahi dio erakusketa honek, omenaldia berandutxo badator ere.

Estas palabras extraídas de la carta que Espinosa escribió al lehendakari Aguirre la víspera de su muerte hablan por sí mismas de la calidad moral de aquel joven médico republicano. Espinosa tomó partido. Claro que lo tomó. Se puso del lado del autogobierno vasco y de la legalidad republicana. Pero, además, en medio de la barbarie, tomó partido por la dignidad humana y por el respeto de los derechos humanos, corrigiendo las injusticias de que fue testigo y evitando persecuciones arbitrarias. El 4 de enero de 1937, tras el triste episodio del asalto a las cárceles de Bilbao en el que murieron 224 presos, Espinosa se presentó en los penales con médicos y ambulancias para auxiliar a los heridos y trasladarlos a los hospitales.

Tomando prestado el título de la obra clásica sobre nuestra guerra civil de Alberto Onaindia, hoy podemos decir que Espinosa fue un "hombre de paz en la guerra". Un hombre empeñado en humanizar el conflicto y en evitar víctimas a toda costa. Fundó la Cruz Roja del País Vasco, supervisó las evacuaciones de niños al extranjero, se ocupó de los refugiados, de los huérfanos de los milicianos, del estado de las guarderías y colonias infantiles y de todos los establecimientos benéficos. Trató de poner a salvo al mayor número de personas y fue un firme defensor del canje de prisioneros.

El Gobierno Vasco ha recordado a Espinosa en otras ocasiones, pero incomprensiblemente aún no hemos logrado que el reconocimiento público de su persona sea unánime y mayoritario. Esta exposición quiere contribuir al homenaje, seguramente tardío, que sin duda debemos al hombre, al político y al consejero que en medio de aquella tragedia colectiva que fue la guerra civil supo cumplir con su deber y pagó un alto precio por su servicio a Euskadi y a la República.

RAFAEL BENGOA

EUSKO
JAURLARITZAKO
OSASUN ETA
KONTSUMOKO
SAILBURUAK.

CONSEJERO
DE SANIDAD Y
CONSUMO DEL
GOBIERNO VASCO.

## EGINKIZUNA BETETZEA, BERTUTE

Medikuek zin hipokratikoa egiten dutenean, konpromiso nagusi bat hartzen dute, hots, gizakien onurarako lan egitea. Alfredo Espinosa Orivek ondo baino hobeto bete zuen hitza.

Izan ere, Agirre lehendakariaren gobernuko osasun sailburuak txiroen medikua izan nahi zuen, eta helburu hori lortzen jakin zuen. Izen horrekin bataiatu zuten, zuzen bataiatu ere, Bilboko herrikideek, ahulenen alde nekatu gabe eta eskuzabaltasunez egiten zuen lana aitortzeko. Alfredo Espinosa, baina, hori baino gehiago izan zen. Askoz ere gehiago.

Bizia arriskuan jarri zuen, gerrako milaka haur salbatzeko. Umezurtz eta elbarrien aingeru guardakoa izan zen. Preso eta errefuxiatuen zaindaria. Grina berberaz egin zuen borroka sukarraren eta bidegabekeriaren aurka. Askatasuna-

## LA VIRTUD DEL DEBER CUMPLIDO

El primer compromiso que un médico adquiere cuando presta juramento hipocrático es consagrar su vida al servicio de la Humanidad. Y si alguien cumplió esa promesa, ese alguien fue Alfredo Espinosa Orive.

Porque el consejero de Sanidad del Gobierno del Lehendakari Aguirre quiso y supo ser el médico de los pobres, tal y como tan acertadamente lo bautizaron sus propios conciudadanos bilbaínos, reconociendo así su infatigable y desinteresada dedicación a las clases más desfavorecidas. Pero Alfredo Espinosa fue más. Mucho más.

Fue el ser humano que se jugó la vida por salvar la de miles de niños de la guerra. El ángel de la guarda de huérfanos y mutilados. El protector de presos y refugiados. El hombre que combatió con

ren eta biziaren medikua izan zen garairik ilun eta beldurgarrienean.

Halako gizon-emakumeen neke eta ardurarik gabe, etorkizun zalantzagarri hura ez zen inoiz orainaldi erreal bihurtuko.

Garai hura eta gerra zibileko gertaera tragiko hura oso gertukoak ditut, nire aita, José María Bengoa, Espinosa sailburuak eta Agirre Lehendakariak osasun arloan antolatutako taldeko kidea izan baitzen.

Alfredo Espinosa Orivek gaur egun euskaldun guztiok darabilgun kalitatezko osasun sistema publiko eta unibertsalaren lehen harria ipini zuen.

Espinosa sailburuak higienea demokratizatzeko eta auzo baztertuenetara eramateko lan egin zuen etengabe. Tuberkulosiaren aurka borroka egin zuen. Ospitale eta sorospen etxe berriak eraiki zituen, eta errotik hobetu zuen ordura artekoen kudeaketa. Kutsatze jendetsuak ekiditeko prebentzio neurriak garatu zituen. Tresna kirurgikoak eta sendagaiak inportatzeaz arduratu zen. Elikagaien kalitate baldintzak zaintzeaz eta kontrolatzeaz. Euskadiko osasunari buruzko txostenak prestatzeaz. Euskal Medikuntza Fakultatea sortzeko laguntza eskaintzeaz...

...Hark erabili zituen, beraz, baldintzarik kontrakoenetan eta uste ideologikoak eta etikoak tarteko, gaur egun erraztasun osoz eta baita arintasunez ere esaten ditugun hitz handi hauek: kontzientzia, ezagutza, elkartasuna, berrikuntza, duintasuna... Espinosak beharrezko ausardia izan zuen, itxaropenez eta erabakitasunez aurre egiteko garai hartako gizarte asaldatuak proposatu zizkion erronka handiei. Eta, batez ere, bizimodu eredu-

el mismo ardor la fiebre y la injusticia. El médico de la libertad y de la vida en el tiempo más oscuro y terrible.

Sin el sacrificio y la entrega de hombres y mujeres como él, nunca habría sido posible que aquel futuro improbable se convirtiera en nuestro tangible presente.

Me es particularmente cercano este periodo y episodio trágico de la Guerra civil ya que mi padre, José María Bengoa, fue parte de ese equipo de Sanidad que organizó el consejero Espinosa y el Lehendakari Aguirre.

Alfredo Espinosa Orive puso la primera piedra de lo que hoy todos los vascos y vascas podemos disfrutar: un sistema de salud público y universal de calidad.

El Consejero Espinosa se empeñó en democratizar la higiene y llevarla a los barrios más olvidados. Él combatió la tuberculosis. Él construyó nuevos hospitales y cuartos de socorro, y mejoró radicalmente la gestión de los existentes. Él desarrolló medidas preventivas para evitar contagios masivos. Él se encargó de importar instrumental quirúrgico y medicinas. De vigilar y controlar las condiciones de calidad de los alimentos. De redactar informes sobre la salud de la Sanidad en Euskadi. De arrimar el hombro para hacer realidad una Facultad de Medicina vasca...

... Él puso, pues, en práctica, en las condiciones más adversas imaginables y por convicción ética e ideológica, todas esas grandes palabras que hoy pronunciamos con tanta facilidad y, a veces, no sin cierta ligereza: Conciencia, Conocimiento, Solidaridad, Innovación, Dignidad... Espinosa demostró el coraje necesario para afrontar con

garriaren bidez predikatu zuen..., baita heriotzaren bidez ere.

Hori guztia dela eta, Alfredo Espinosa Orive gaur egun inoiz baino biziago dagoela baieztatzera ausartuko naiz. Eta gaur, atzo bezala, gure iparrorratza eta erreferentea da, XXI. mendeko lehen konpasek dakarzkiguten erronka handiei aurre egiteko. Orain, orduan gertatzen zen antzera, aintzat hartu behar ditugu haren ausardia, itxaropena eta, batez ere, gizakiei begirako ardura. Faxisten esku hil aurretik agurtzeko idatzitako gutun hunkigarrian eginkizuna betetzea bertute pozgarria dela adierazi zuen, eta ikasi egin behar dugu irakaspen hori. Izan ere, hori ikasitakoan bakarrik defendatu ahalko ditugu hortzez eta haginez oinarrizko lorpen sozial ezin uko eginezkoak, hala nola kalitatezko osasun sistema publiko eta unibertsala, osasun arloko lehen euskal sailburu ahaztezinaren eta beste hainbaten eskuzabaltasunari esker lortutakoa.

esperanza y determinación los enormes retos que la convulsa sociedad de su tiempo le planteó. Y, sobre todo, predicó con el modélico ejemplo de su propia vida... y de su propia muerte.

Por eso, me atrevo a decir que Alfredo Espinosa Orive sigue hoy más vivo que nunca. Y hoy como ayer, nos sirve de brújula y referente para enfrentarnos a los desafíos nada menores que estos primeros compases del siglo XXI nos lanza. Ahora, como entonces, necesitamos aprender de su coraje, de su esperanza y, sobre todo, de su entrega al género humano. De la satisfacción y "la virtud del deber cumplido", como él acertó a expresar en su última y emotiva carta de despedida, antes de ser fusilado por los fascistas. Porque sólo así seremos capaces de defender con uñas y dientes conquistas sociales tan esenciales e irrenunciables como nuestro modelo sanitario público, universal y de calidad, del que actualmente podemos disfrutar gracias a la generosidad de hombres como el primer e inolvidable consejero de Sanidad vasco.



1903-1937

# ALFREDO ESPINOSA

**ERREPUBLIKANO**
BAT EUSKADIREN
ZERBITZURA

**UN REPUBLICANO**
AL SERVICIO
DE EUSKADI



"Alfredo Espinosa Orive".
GOAZ MUSEUM.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa.
Museo del Nacionalismo Vasco.
Sabino Arana Fundazioa.

## MEDIKU ERREPUBLIKANOA

Alfredo Espinosa Orive (Bilbo, 1903-Gasteiz, 1937) medikua zen lanbidez, eta Partido Republicano Radical Socialista alderdiko eta, ondoren, Unión Republicana alderdiko sortzailea eta burua izan zen. II. Errepublikan, Bilboko Udaleko zinegotzia izan zen, Burgosen eta Logroñon gobernadore zibila, eta, era berean, Jose Antonio Agirre lehendakari zuen lehenengo Eusko Jaurlaritzako Osasun arloko sailburu hautatu zuten. Espinosa izan zen errepresio frankista jasan zuen gobernu hartako sailburu bakarra. Zarautzen atxilotu zuten 1937ko ekainaren 21ean, eta Gasteizen hil zuten, bost egun geroago.

## UN MÉDICO REPUBLICANO

Alfredo Espinosa Orive (Bilbao, 1903-Vitoria, 1937), médico de profesión, fue fundador y dirigente del Partido Republicano Radical Socialista primero y de Unión Republicana después. En la II República ocupó los cargos de concejal del Ayuntamiento de Bilbao, Gobernador Civil de las provincias de Burgos y Logroño, y fue elegido Consejero de Sanidad del primer Gobierno Vasco, presidido por el Lehendakari José Antonio Aguirre. Espinosa fue el único de los consejeros de aquel Gobierno que sufrió la represión franquista. Fue detenido en Zarautz el 21 de junio de 1937 y ejecutado en Vitoria cinco días después.



"Alfredo Espinosa eta Francisca Gómez, ezkonberri".
Alfredo Espinosaren familia.

"Alfredo Espinosa y Francisca Gómez, recién casados".
Familia de Alfredo Espinosa.



"Alfredo Espinosa eta emaztea, Francisca Gómez".
Alfredo Espinosaren familia.

"Alfredo Espinosa y su mujer, Francisca Gómez".
Familia de Alfredo Espinosa.



"Alfredo Espinosa bere seme-alaba María Victoria eta Alfredorekin".
Alfredo Espinosaren familia.

"Alfredo Espinosa con sus hijos, María Victoria y Alfredo".
Familia de Alfredo Espinosa.

## FAMILIA

Alfredo Espinosa Orive Bilbon jaio zen 1903ko irailaren 6an. Francisca Gómez Castellekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituen: María Victoria eta Alfredo. José Espinosa Rodríguezen eta Consuelo Orive Ontiverosen semea zen. Haren aita Granadan jaio zen 1873an, baina laster joan zen Bilbora bizitzera, eta han, ideia errepublikanoko abokatu ezaguna izan zen.

## SU FAMILIA

Alfredo Espinosa Orive nació en Bilbao el 6 de septiembre de 1903. Estuvo casado con Francisca Gómez Castell, con quien tuvo dos hijos, María Victoria y Alfredo. Era hijo de José Espinosa Rodríguez y Consuelo Orive Ontiveros. Su padre, nacido en Granada en 1873 pero residente desde edad temprana en Bilbao, fue un conocido abogado de ideas republicanas de la capital vizcaína.




"*Licor del Polo* etiketa".
Bilduma pribatua.

"Etiqueta de *Licor del Polo*".
Colección particular.



"*Licor del Polo* flaskoa".
Tomas Ondarrak utzitako argazkia.

"Frasco de *Licor del Polo*".
Foto cedida por Tomás Ondarra.



JARABE ESTIMULANTE ANTI NERVIOSO, TONICO ANTI-CLOROTICO DE **ORIVE** DE QUINA, NARANJAS Y HIERRO.

UNICA PREPARACION DE ESTE ASOCIABLE A AQUELLAS.

| Superior por su composicion y efectos al fosfato soluble de Leras y al de quina ferruginoso de Grimault. | PREMIOS EN VARIAS EXPOSICIONES. | Aventaja bajo todos conceptos al hierro de Brabais y a todo preparado ferruginoso, soluble ó insoluble. |
|---|---|---|

Sus efectos en la opilacion, desarreglo de la menstruacion, dificultad de la misma, desarrollo penoso de la pubertad, colores palidos, flaqueza, demacracion, debilidad, inapetencia, dolores de estómago, de cabeza y de intestinos, cólicos nerviosos, vómitos, decaimiento de fuerza, consuncion, raquitismo y en general en todo desequilibrio entre los sistemas nervioso-sanguineo, son seguros, infalibles y rapidos. Cura admirablemente la debilidad de los niños, la postracion de los ancianos y repara prontamente el tono perdido por largas enfermedades y por abuso de la lactancia en las señoras que crian, dando á la sangre roja coloracion, estimulando el apetito, entonando el estómago y favoreciendo las digestiones penosas. Compárese con el jarabe de quina ferruginoso de Grimault y se notará que el nuestro teniendo, sobre el francés la adicion de la corteza de la naranja, es cuatro veces mas económico, pues vendiéndose aquel á 18 rs. y teniendo el nuestro que se vende á 10 y a 8 por docenas triple concentracion de quina y hierro se comprende perfectamente que ademas de ser mucho más eficaz es cuatro veces más barato.

Precio de la botella 10 rs. en todos sitios, acompañada de amplia instruccion. Fíjase rótulo grabado en el cristal y cápsula que diga: «Farmacia de Orive, Bilbao.» *Sin cuyas señas es falsificado este jarabe.*

"Orive Farmaziaren iragarkia".
*El Noticiero Bilbaino* egunkaria.

"Anuncio de la Farmacia Orive".
Diario *El Noticiero Bilbaino*.

## LICOR DEL POLO

Espinosaren amaren aldeko aitona, Salustiano Orive Oteo, oso ezaguna izan zen Bilbon, XIX. mendeko azken laurdenean. Licor del Polo hortzetako pastaren sortzailea, Bilboko alde zaharreko Ascao kalean 1870ean irekitako farmazia baten arduraduna zen. Salustiano Orive profesional nahiz politiko gisa izan zen ezaguna. Izan ere, Francisco Pi y Margallek zuzendutako Partido Republicano Federal alderdiko kidea izan zen, eta hainbat erantzukizun izan zituen, maila lokalean nahiz estatu mailan.

## LICOR DEL POLO

Su abuelo materno, Salustiano Orive Oteo, fue un conocidísimo personaje en el Bilbao del último cuarto del siglo XIX. Creador del dentífrico Licor del Polo, regentaba una farmacia en la calle Ascao del Casco Viejo bilbaíno, abierta al público en 1870. Tan conocida como su faceta profesional fue su faceta política, pues Salustiano Orive perteneció al Partido Republicano Federal que dirigía Francisco Pi y Margall, en el cual ocupó destacadas responsabilidades tanto a nivel local como nacional.



"Sendagile bat zauritutako soldadua artatzen".
Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua / Centro del Patrimonio Documental de Euskadi

"Un médico atiende a un soldado herido".
Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua / Centro del Patrimonio Documental de Euskadi




"Alfredo Espinosaren kontsulta pribatuaren iragarkia".
*El Liberal* egunkaria.

"Anuncio de la consulta particular de Alfredo Espinosa".
Diario *El Liberal*.



"Egungo Unamuno Plazan zegoen Instituto Vizcaíno delakoa".
Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa.

"El Instituto Vizcaíno estaba situado en la actual Plaza de Unamuno".
Diputación Foral de Bizkaia-Archivo Foral.

## 'BEHARTSUEN MEDIKUA'

Alfredo Espinosak Bilbon hasi zituen ikasketak, eta Batxilergoko titulua lortu zuen Instituto Vizcaínon. 1919an Medikuntzako ikasketei ekin zien Madrilgo San Carlos Unibertsitatean, 1926an lizentziatu zen, eta haurren higienearen arloan espezializatu zen. San Juan de Dios (Madril) eta Basurtuko (Bilbo) ospitaleetan osatu zuen bere prestakuntza-aldia, barneko ikasle gisa. Osasun-ikuskatzaile, mediku eta Higiene Zerbitzu Berezietako ordezkari moduan lan egin zuen Bilboko Udalerako, eta, horrez gainera, kontsulta bat eduki zuen etxean. 'Behartsuen mediku' gisa izan zen ospetsua, gizarte-maila apalekoak eskuzabaltasunez artatzen zituelako.

## EL 'MÉDICO DE LOS POBRES'

Alfredo Espinosa inició sus estudios en Bilbao, alcanzando el título de Bachiller en el Instituto Vizcaíno. En 1919 inició la carrera de Medicina en la Universidad San Carlos de Madrid, licenciándose en el año 1926 y especializándose en la rama de higiene infantil. Completó su etapa formativa como alumno interno en los hospitales San Juan de Dios (Madrid) y Basurto (Bilbao). Para el Ayuntamiento de Bilbao trabajó como Inspector de Sanidad, médico y delegado de los Servicios de Higiene Especial, además de mantener una consulta abierta en su propio domicilio. Fue conocido como el "médico de los pobres" por la ayuda que prestaba a las clases más humildes a quienes atendía de forma desinteresada.



"Primo de Rivera tropen errebista batean Garellanoko kuartelean".
Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa.

"Primo de Rivera pasa revista a las tropas en el cuartel de Garellano".
Diputación Foral de Bizkaia-Archivo Foral.



"Primo de Riveraren Gobernuko Ministroen Kontseiluaren bilera Bizkaiko Aldundian".
Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa.

"Reunión del Consejo de Ministros de Primo de Rivera en la Diputación de Bizkaia".
Diputación Foral de Bizkaia.



"Primo de Rivera Gernikan bisitan".
Gernikazarra Historia Taldea.

"Visita de Primo de Rivera a Gernika".
Gernikazarra Historia Taldea.

## IKASLE DEMOKRATA

Espinosa bilbotar errepublikanoen semea eta biloba zen, eta Madrilen unibertsitatean zegoela jarri zen harremanetan politika aktiboarekin. Federación Universitaria Escolar (FUE) elkartera afiliatuta egon zen. Elkarte hori 1927an sortu zen, eta ikasleen elkarte demokrata eta laikoa zen. Espinosak Primo de Riveraren diktadurarekin (1923-1930) amaitzeko errepublikanoen hainbat saiotan parte hartu zuen. Halaber, 1926ko ekainaren 24ko gauerako prestatutako altxatze militarra (Sanjuanada deritzona) bultzatzeaz arduratu zen batzorde iraultzailean parte hartu zuen. Era berean, 1930eko abenduko Batzorde Iraultzailean parte hartu zuen, Jacako altxamenduan, hain zuzen.

## ESTUDIANTE DEMÓCRATA

Hijo y nieto de republicanos bilbaínos, Espinosa tomó contacto con la política activa durante su estancia universitaria en Madrid. Estuvo afiliado a la Federación Universitaria Escolar (FUE), asociación estudiantil demócrata y laica creada en 1927. Espinosa participó en varias intentonas republicanas para acabar con la Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930). Así, formó parte del Comité revolucionario encargado de apoyar un pronunciamiento militar preparado para la noche del 24 de junio de 1926, la denominada "sanjuanada". De la misma forma, participó en el Comité revolucionario de diciembre de 1930, cuando se produjo la sublevación de Jaca.



"Marcelino Domingo, Manuel Azaña eta Indalecio Prieto mitin errepublikano-sozialista batean, Bilbon".
Pablo Iglesias Fundazioa.

"Marcelino Domingo, Manuel Azaña e Indalecio Prieto en un mitin republicano-socialista en Bilbao".
Fundación Pablo Iglesias.



"Alcalá-Zamora, Azaña eta Errepublikako Gobernuko gainerako kideak".
Pablo Iglesias Fundazioa.

"Alcalá-Zamora, Azaña y el resto de los componentes del Gobierno republicano".
Fundación Pablo Iglesias.

## ALDERDI ERREPUBLIKANOA

1929an, Madrilen, Marcelino Domingo buru zuen Partido Republicano Radical Socialista (PRRS) alderdiaren sorreran parte hartu zuen Espinosak. Alderdi hori talde politiko ezkertiarra zen, eta hainbat gai defendatzen zituen; besteak beste, oinarri federalean antolatutako errepublika demokratikoa, udal eta eskualde mailako autonomien aitortza, estatuaren eta irakaskuntzaren laikotasuna eta joera sozialistako ekonomia- eta gizarte-politika. PRRS hirugarren alderdi politikorik garrantzitsuena izan zen Errepublikako Gorteetan 1931n, eta alderdi hark lehenengo biurtekoko (1931-1933) gobernu guztietan parte hartu zuen. Sindikatuei dagokienez, Espinosa Bizkaiko Medikuen Sindikatuko kide zen, UGT taldeari lotuta.

## PARTIDO REPUBLICANO

En 1929, en Madrid, Espinosa participó en la fundación del Partido Republicano Radical Socialista que lideraba Marcelino Domingo. Este partido era una formación política de izquierdas que defendía una República democrática articulada sobre la base federal, el reconocimiento de las autonomías municipales y regionales, el laicismo del Estado y de la enseñanza, y una política económica y social de marcada tendencia socialista.
El PRRS fue el tercer partido político en importancia en las Cortes republicanas de 1931 y participó en todos los Gobiernos del primer bienio (1931-1933). A nivel sindical, Espinosa estuvo afiliado al Sindicato Médico de Vizcaya, vinculado a la UGT.



"Errepublikanoen mitina Mallonan, 1933ko maiatzaren 2an".
Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa.

"Mitin republicano en Mallona el 2 de mayo de 1933".
Diputación Foral de Bizkaia-Archivo Foral.



"Unión Republicana Femenina erakundeko kideak, 1933ko maiatzaren 2ko jaian".
Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa.

"Componentes de la Unión Republicana Femenina en la fiesta del 2 de mayo de 1933".
Diputación Foral de Bizkaia-Archivo Foral.



Las izquierdas y las elecciones

LA ASAMBLEA DE LOS REPUBLICANOS RADICALES SOCIALISTAS

El domingo, a las once de la mañana, celebró asamblea general ordinaria el Partido Republicano Radical Socialista de Bilbao.

Hubo enorme concurrencia de afiliados, que dieron muestras del mayor entusiasmo.

Se leyó y aprobó por unanimidad el acta de la asamblea de noviembre. La lectura de la Memoria, muy bien escrita, se escuchó con atención e interés, siendo aprobada en medio de una gran salva de aplausos.

A continuación se leyó una nota, que aparecerá en la Prensa, sobre la conducta a seguir en las presentes circunstancias por el Partido Radical Socialista, siempre al lado de los elementos antidinásticos.

Fué aprobada unánimemente.

Se trató sobre elecciones, y se acordó luchar con toda decisión en las municipales en unión de las fuerzas de izquierda.

Leída una comunicación de l[a] Agrupación Republicana para que s[e] nombrara un delegado que integre e[l] Comité electoral, se facultó a la Di[rectiva] para que haga la designa[ción].

A segundo se realizó la votación pa[ra] constituir la nueva Junta directi[va], siendo nombrada la siguiente:

Presidente, D. Ramón Sánche[z] Díaz.

Vicepresidente, D. Alfredo Espino[sa] Orive.

Secretario, D. Jacinto Daniel Mon[te]llano.

Vicesecretario, D. José Ramó[n] Ruiz.

Tesorero, D. Alejandro Martíne[z] Escucho.

Contador, D. José Manuel Orúe Za[ba]la.

Bibliotecario, D. Agapito Millán Es[te]fanía.

Vocales: D. Hipólito Sánchez, do[n] Luis Caredo, D. Jesús Conejos, do[n] José Díaz, D. Jesús Martínez Metol[a] y D. Tomás Guerrero.

Como final se invitó a los afiliado[s] a engrosar la suscripción pro preso[s] y emigrados, como así se hizo en e[l] acto, obteniéndose una crecida can[ti]dad.

"Bilboko Partido Republicano Radical Socialista alderdiaren batzarretarako deia".
*El Liberal* egunkaria.

"Convocatoria de Asambleas del Partido Republicano Radical Socialista de Bilbao".
Diario *El Liberal*.

## BILBOKO ERREPUBLIKANISMOAREN BURUA

Alfredo Espinosak Bilboko Partido Republicano Radical Socialista alderdiaren sorreran parte hartu zuen 1930eko urrian, eta Bilboko taldearen lehendakaria izan zen 1931. eta 1933. urteen artean. PRRS Bizkaiko bigarren alderdi errepublikano garrantzitsuena zen, Acción Republicana taldearen atzetik. 1931n, Bilboko egoera politikoa hiru indar nagusik osatzen zuten. Batetik, ezker errepublikanoa zegoen, Espinosaren PRRS alderdiak eta Acción Republicana, Eusko Abertzale Ekintza eta Prietoren PSOE alderdiek osatzen zutena. Beste bi indarrak, berriz, Eusko Alderdi Jeltzalea eta eskuin monarkikoa ziren.

## LÍDER DEL REPUBLICANISMO BILBAÍNO

Alfredo Espinosa participó en la fundación del Partido Republicano Radical Socialista en Bilbao en octubre de 1930 y fue presidente de la agrupación local entre 1931 y 1933. El PRRS era el segundo partido republicano en importancia en Bizkaia, tras Acción Republicana. El panorama político local en el Bilbao de 1931 se concebía como un triángulo de fuerzas. De un lado se situaba la izquierda republicana, donde el PRRS de Espinosa compartía espacio político con Acción Republicana, Acción Nacionalista Vasca y el PSOE de Prieto. En los otros dos vértices se encontraban, respectivamente, el Partido Nacionalista Vasco y la derecha monárquica.



"Mitin errepublikano-sozialista Bilboko zezen-plazan".
Pablo Iglesias Fundazioa.

"Mitin republicano-socialista en la plaza de toros de Bilbao".
Fundación Pablo Iglesias.




"Errepublikanoen mitina Mallonan, 1933ko maiatzaren 2an
Bizkaiko Foru Aldundia-Foru Artxiboa.

"Procesión republicana a Mallona el 2 de mayo de 1933".
Diputación Foral de Bizkaia-Archivo Foral.

## UNIÓN REPUBLICANA ALDERDIA

1934. urtean, eta alderdi errepublikanoen sistema berrantolatu ondoren, Espinosak Unión Republicana alderdian parte hartu zuen. Unión Republicana alderdiak Espainiaren batasunarekin bat zetorren udal- eta eskualde-autonomien integrazio gisa ikusten zuen Espainia, eta erreforma politiko, ekonomiko eta sozialen programa zabala bultzatzen zuen. Alderdi hori Bizkaiko errepublikanismoko alderdi txiki bat izan zen, eta haren talde nagusia Izquierda Republicana izan zen. 1935ean, Unión Republicana alderdia Fronte Popularra koalizioan sartu zen, sozialistekin, komunistekin eta Izquierda Republicana alderdiarekin batera.

## LA UNION REPUBLICANA

En 1934, y tras la reorganización del sistema de partidos republicanos, Espinosa pasó a formar parte de la Unión Republicana. El ideario de UR recogía la definición del Estado español como una integración de autonomías municipales y regionales compatible con la unidad de España y defendía un programa amplio de reformas políticas, económicas y sociales. Unión Republicana fue un partido minoritario dentro del republicanismo vizcaíno, cuya formación hegemónica fue Izquierda Republicana. En 1935, UR se integró en el Frente Popular junto a socialistas, comunistas e Izquierda Republicana.



BILBAO

El Liberal

BILBAO

¡ESPAÑA POR LA REPÚBLICA!

En Bilbao, como en casi todas las capitales, la candidatura antimonárquica obtiene aplastante mayoría

EL NOTICIERO BILBAINO

DIARIO IMPARCIAL, DEFENSOR DE LA UNION VASCONGADA

LAS ELECCIONES MUNICIPALES

Su resultado, favorable a los elementos anti-monárquicos, ha producido conmoción en toda España

RESULTADOS DE LA CONTIENDA ELECTORAL EN ESPAÑA

El triunfo de las fuerzas antimonárquicas coloca al régimen en la más grave y difícil situación

UN NUEVO MANIFIESTO FIRMADO POR LOS MIEMBROS DEL GOBIERNO REVOLUCIONARIO DE DICIEMBRE

"Evaluación periodística de los resultados de las elecciones del 12 de abril".
*El Liberal, El Noticiero Bilbaíno* y *Euzkadi* del 14-04-1931.

"Apirilaren 12ko hauteskundeetako emaitzen ebaluazioa kazetetan".
*El Liberal, El Noticiero Bilbaíno* eta *Euzkadi*, 1931-04-14



"1931ko apirilaren 12ko hauteskundeetatik sortu zen Udalbatza, Ernesto Ercoreca buru".
Ernesto Ercorecaren familia.

"La corporación municipal salida de las elecciones del 12 de abril de 1931, con Ernesto Ercoreca a la cabeza".
Familia de Ernesto Ercoreca.

## BILBOKO ZINEGOTZIA

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan, Alfredo Espinosa Bilboko Udaleko zinegotzi hautatu zuten; hauteskunde horiek Espainiako II. Errepublikaren aldarrikapena eragin zuten apirilaren 14an. Espinosa monarkiaren aurkako blokearen hautagaitzan aurkeztu zen hauteskundetara. 1.622 boto eskuratu zituen Geltokia barrutian, hots, langile jatorriko Las Cortes eta San Francisco auzo jendetsuetan. Monarkiaren aurkako blokeak garaipen zabala lortu zuen hauteskunde haietan.

## CONCEJAL BILBAINO

Alfredo Espinosa fue elegido concejal del Ayuntamiento de Bilbao tras las elecciones municipales del 12 de abril de 1931, comicios que provocaron la proclamación de la II República en España el 14 de abril. Espinosa se presentó a las elecciones dentro de la candidatura del Bloque Antimonárquico. Obtuvo 1.622 votos por el distrito de Estación, que agrupaba a los populosos barrios de Las Cortes y San Francisco, de clara extracción obrera. La victoria del Bloque Antimonárquico en aquellas elecciones fue amplísima.



"Hiri Agiriaren irakurketa, 1932ko abenduaren 25ean".
Ernesto Ercorecaren familia.

"Lectura de la carta puebla el 25 de diciembre de 1932".
Familia de Ernesto Ercoreca.



BILBAO
El Liberal
BILBAO

¡Viva la República!

El pueblo español da un ejemplo, único en la historia del mundo, implantando el nuevo régimen con plena consciencia de sus deberes cívicos

EL PUEBLO VASCO
BILBAO

RENUNCIA DEL REY AL TRONO Y PROCLAMACION DE LA REPUBLICA

Euzkadi

En Bilbao, en Bizk ya entera, he aquí el grito que brotó de todas las gargantas, y que estaba en el corazón de todos los nacionalistas, en las manifestaciones callejeras a que dió origen la proclamación de la República española:

¡GORA EUZKADI AZKATUTA!

"La proclamación de la República en la prensa bilbaína".
*El Liberal, El Pueblo Vasco* y *Euzkadi*, 15-04-1931.

"Errepublikaren aldarrikapena Bilboko prentsan".
*El Liberal, El Pueblo Vasco* eta *Euzkadi*, 1931-04-15.

## UDAL ERREPUBLIKANOA

Ernesto Ercoreca errepublikanoa buru zuen eta Monarkiaren aurkako blokeko 31 zinegotzi, EAJ alderdiko 12 zinegotzi eta Concentración Monárquica alderdiko 3 zinegotzirekin osatuta zegoen udalean, Espinosa Ospitale Zibileko eta Tuberkulosiaren Aurkako Batzorde Probintzialeko ordezkari izendatu zuten. Eztabaidetan, ideologia errepublikano ezkertiarra zeukala eta medikua zela igartzen zitzaion: hilerriak sekularizatzeko eta Jesusen Bihotza estatua botatzeko eskatu zuen, Bilboko eskola-arazoari irtenbideak aurkitzen ahalegindu zen, eta Bilboko auzoetan higienea sustatzeko neurriak bultzatu zituen.

## AYUNTAMIENTO REPUBLICANO

En el Ayuntamiento presidido por el republicano Ernesto Ercoreca y compuesto por 31 concejales del Bloque Antimonárquico, 12 del PNV y 3 de Concentración Monárquica, Espinosa fue nombrado vocal del Hospital Civil y de la Junta provincial antituberculosis. En los debates dio muestra de su ideología republicana de izquierdas y de su condición de médico: solicitó la secularización de los cementerios y el derribo de la estatua del Sagrado Corazón, buscó soluciones al problema escolar en Bilbao y propuso medidas para el fomento de la higiene entre el vecindario de la capital vizcaína.



"Oinezkoak miatzen Logroñon".
Biblioteca Nacional de España.
*Estampa aldizkaria*, 6. urtea, 310. zenb.

"Cacheo de los transeúntes en Logroño".
Biblioteca Nacional de España.
*Revista Estampa*, Año 6, N° 310.



"Gurutze Gorria eta Guardia Zibila San Vicente de la Sonsierran".
Bilduma pribatua.

"La Cruz Roja y la Guardia Civil en San Vicente de Sonsierra"
Colección privada.



"Matxinatuetako bat, Guardia Zibilak atxilotua".
Bilduma pribatua.

"Uno de los insurrectos es detenido por la Guardia Civil".
Colección particular.

## BURGOSKO ETA LOGROÑOKO GOBERNADORE ZIBILA

1933ko irailean, Espinosak zinegotzi izateari uko egin zion, Burgos probintziako gobernadore zibil izendatu zutelako. Gaztelako hiriburu hartan oso egonaldi laburra egin zuen, handik gutxira Logroñoko Gobernu Zibilera joan baitzen. Errioxako hiriburuan, matxinada anarkista jasan zuen, abenduaren 8an. Alarma-egoera piztu behar izan zuen, eta ondoko probintzietako errefortzuak jaso behar izan zituen, egoera oso larria zelako.

## GOBERNADOR CIVIL DE BURGOS Y LOGROÑO

En septiembre de 1933, Espinosa renunció a su acta de concejal con motivo de su nombramiento como Gobernador Civil de la provincia de Burgos. Su estancia en la capital castellana fue muy breve, puesto que al poco tiempo se le trasladó al Gobierno Civil de Logroño. En la capital riojana tuvo que afrontar la insurrección anarquista del 8 de diciembre, viéndose obligado a decretar el estado de alarma y a recibir refuerzos provenientes de provincias limítrofes ante la gravedad de la situación.



LA Unión General de Trabajadores, leal a sus compromisos con el Frente Popular, hace un llamamiento a todo el proletariado para que, más unido que nunca, replique con toda energía a la infame intentona fascista

El Liberal

NUMERO SUELTO 15 CENTIMOS

EL Gobierno licencia a las tropas cuyos cuadros de mando se han colocado fuera de la legalidad republicana y disuelve todas las unidades del Ejército que toman parte en el movimiento insurreccional

DOMINGO, 19 DE JULIO DE 1936 | Redacción, oficinas y talleres: ORUETA, 2 | BILBAO | Apartado 118. - Teléfonos 11.461 y 11.081 | AÑO XXXVI. - NUMERO 12.344

HORAS DECISIVAS

TODOS UNIDOS ¡POR LA REPUBLICA!

"Portada de *El Liberal* al día siguiente de la sublevación franquista"

"*El Liberal* egunkariaren aurreneko orrialdea, frankisten matxinadaren biharamunean".



El Liberal

15

GIL Robles antes de conquistar el Poder prometió sacar el dinero de donde lo hubiera para remediar el paro obrero. Fué Poder y no cumplió su promesa. ¡Engañó al pueblo!

FRENTE POPULAR

El Manifiesto que suscriben Izquierda Republicana, Unión Republicana, Partido Socialista, Unión General de Trabajadores, Federación Nacional de Juventudes Socialistas, Partido Obrero de unificación marxista, Partido Comunista y Partido Sindicalista

Todas estas organizaciones han llegado a comprometer un plan político que sirva de fundamento y cartel en la inmediata contienda electoral y de norma de gobierno que habrán de desarrollar los partidos republicanos de izquierda con el apoyo de las fuerzas obreras.

"Formación del Frente Popular". Diario *El Liberal*.

"Herri Fronteko formazioa". *El Liberal* egunkaria.

## MATXINADA MILITARRAREN AURKA

1936ko uztailaren 18ko matxinada militarraren berri izatean, Espinosa Errepublikaren legezkotasuna defendatzeko lanetan hasi zen. Uztailaren 23an, Errepublika Defendatzeko Komisaria Nagusiko Osasun ordezkari izendatu zuten Bizkaian. Matxinada militarraren indarra egiaztatu ondoren, erakunde hori Bizkaiko Defentsa Batzarrak ordezkatu zuen, eta batzar horretan, Komunikazio arloko zuzendari nagusi kargua hartu zuen Espinosak. Defentsa Batzarra indarrean egon zen, Autonomia Estatutua onartu eta lehenengo Eusko Jaurlaritza osatu zen arte; izan ere, orduan, Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zituen eskumen guztiak.

## CONTRA LA SUBLEVACIÓN MILITAR

Nada más conocerse la sublevación militar del 18 de julio de 1936, Espinosa se puso manos a la obra en defensa de la legalidad republicana. El 23 de julio fue nombrado delegado de Sanidad de la Comisaría General de la Defensa de la República en Bizkaia. Tras constatar la fuerza de la sublevación militar, este organismo fue sustituido por la Junta de Defensa de Bizkaia, en la que Espinosa ocupó el cargo de Director General de Comunicaciones. La Junta de Defensa estuvo vigente hasta la aprobación del Estatuto de Autonomía y la formación del primer Gobierno Vasco, al que transfirió todas las competencias.



"Jose Antonio Agirre lehendakaria eta haren sailburuak Gernikako Batzar Etxean".
"El lehendakari José Antonio Aguirre y sus consejeros en el interior de la Casa de Juntas de Gernika."

GOAZ MUSEUM.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Museo del Nacionalismo Vasco.
Sabino Arana Fundazioa.

## OSASUN ARLOKO LEHENENGO SAILBURUA

Errepublikako Gorteek Autonomia Estatutua onartu zuten 1936ko urriaren 1ean, eta lehenengo Eusko Jaurlaritza osatu zen Gernikan, urriaren 7an. Gobernu hark Errepublikaren legezkotasunarekin konpromisoa hartu zuten alderdi guztietako ordezkariak zituen: EAJ alderditik, José Antonio Aguirre (Lehendakaritza eta Defentsa), Jesús Mª Leizaola (Justizia eta Kultura), Telésforo Monzón (Herrizaingoa) eta Heliodoro de la Torre (Ogasuna); PSOE alderditik, Santiago Aznar (Industria), Juan de los Toyos (Lana) eta Juan Gracia (Gizarte Laguntza); Alderdi Komunistatik, Juan Astigarrabía (Herri Lanak); Eusko Abertzale Ekintza alderditik, Gonzalo Nárdiz (Nekazaritza); Izquierda Republicana alderditik, Ramón Aldasoro (Merkataritza), eta, azkenik, Unión Republicana alderditik, Alfredo Espinosa Orive (Osasuna).

## EL PRIMER CONSEJERO DE SANIDAD

El Estatuto de Autonomía fue aprobado por las Cortes republicanas el 1 de octubre de 1936, constituyéndose el 7 de octubre en Gernika el primer Gobierno Vasco. Aquel Gobierno estaba compuesto por representantes de todos los partidos comprometidos con la legalidad republicana. Por el PNV estaban José Antonio Aguirre (Presidencia y Defensa), Jesús Mª Leizaola (Justicia y Cultura), Telésforo Monzón (Gobernación) y Heliodoro de la Torre (Hacienda); por el PSOE Santiago Aznar (Industria), Juan de los Toyos (Trabajo) y Juan Gracia (Asistencia Social); por el Partido Comunista Juan Astigarrabía (Obras Públicas); por Acción Nacionalista Vasca Gonzalo Nárdiz (Agricultura); por Izquierda Republicana Ramón Aldasoro (Comercio); completaba el Gobierno por el partido Unión Republicana Alfredo Espinosa Orive en la consejería de Sanidad.



"Jendea aire-erasoetarako babeslekurantz lasterka, Bilboko Kale Nagusian".

"La población corre hacia los refugios antiaéreos en la Gran Vía bilbaína".

Collection Fernando Gómez Peláez, International Institute of Social History (Amsterdam). Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua. / Centro de Documentación sobre el Bombardeo de Gernika.



"Aire-erasoetarako babeslekua Bilbon".

"Refugio antiaéreo en Bilbao".

Collection Fernando Gómez Peláez, International Institute of Social History (Amsterdam). Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua. / Centro de Documentación sobre el Bombardeo de Gernika.



"Eusko Jaurlaritzaren bilera". Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua.

"Reunión del Gobierno Vasco". Irargi. Centro del Patrimonio Documental de Euskadi.

## OSASUNGINTZA GERRA-GARAIAN

Hasieran, Osasun Saila Basurtuko Ospitaleko kontsulta-pabilioian ezarri zen, eta, ondoren, Bilboko Kale Nagusiko Eskauriaza Jauregian. Osasun Saila herritarrak artatzeaz arduratu zen soilik. Saila antolatzeko eta ondo funtzionatzeko, Espinosak eta haren lankideek honako atal hauek sortu zituzten, besteak beste: Mediku eta Osasun Estatistika; Osasun Informazioa; Antolakuntza; Herritarren Defentsa Aireko Erasoen Aurka; Landako eta Hiriko Higienearen, Tuberkulosiaren aurkako Borrokaren eta Haurren Higienearen arloko Ikuskaritzak; Odontologia; Farmazia; Ospitale Zibilak, eta Medikuntzako eta Kirurgiako Laguntza Zerbitzuak.

## SANIDAD EN TIEMPOS DE GUERRA

El Departamento de Sanidad se ubicó en un primer momento en el pabellón de consultas del Hospital de Basurto, para posteriormente instalarse en el Palacio Escauriaza de la Gran Vía bilbaína. La acción del Departamento de Sanidad se dedicó en exclusiva a la atención de la población civil. Para la organización y el correcto funcionamiento del Departamento, Espinosa y sus colaboradores constituyeron, entre otras, las secciones de Estadística Médico-Sanitaria, Información Sanitaria, Organización, Defensa de la Población Civil contra los ataques aéreos, y las inspecciones de Higiene Rural y Urbana, Lucha Antituberculosa e Higiene Infantil, Odontología, Farmacia, Hospitales Civiles y Servicios Auxiliares de Medicina y Cirugía.



"Aguirre eta Espinosa, beste pertsonalitate batzuekin, gerra-zauritutakoei eginiko bisitan"

"Aguirre y Espinosa, junto con otras personalidades, visitan a los heridos de guerra".

GOAZ MUSEUM.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Museo del Nacionalismo Vasco. Sabino Arana Fundazioa.



"Euskal gerra-ospitale baten barnealdea".

"Interior de un hospital de guerra vasco".

Collection Fernando Gómez Peláez, International Institute of Social History (Amsterdam). Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua. / Centro de Documentación sobre el Bombardeo de Gernika.



"Orozkoko odol-ospitalea".
Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua.

"Hospital de sangre de Orozko".
Irargi. Centro del Patrimonio Documental de Euskadi.

## OSPITALE BERRIAK ETA MEDIKUNTZA FAKULTATEA

Gerra-garaian, herritarrei mediku-laguntza eskaintzeaz arduratu zen Espinosa, eta arreta berezia eskaini zien haurrei, ebakuatuei eta errefuxiatuei. Hori dela-eta, Gizarte Laguntza Sailarekin hertsiki lan egin zuen. Espinosaren sailak ospitale eta sorospen-gune berriak sortu eta prestatu zituen, eta jadanik bazeuden establezimenduen kudeaketa hobetu zuen. Halaber, honako alderdi hauez arduratu zen, besteak beste: gaixotasun infekziosoak kutsatzea saihesteaz, material kirurgikoa eta produktu farmazeutikoak inportatzeaz, elikagaien kalitatea eta salmenta ikuskatzeaz eta Euskadiko osasun-egoerari buruzko txostenak egiteaz. Horrez gain, Espinosak Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultatearen sorreran parte hartu zuen.

## NUEVOS HOSPITALES Y FACULTAD DE MEDICINA

Durante la guerra, Espinosa se ocupó de la asistencia médica de la población civil, con atención especial a niños, evacuados y refugiados, por lo que tuvo que colaborar muy estrechamente con el Departamento de Asistencia Social. Su Consejería creó y habilitó nuevos hospitales y cuartos de socorro e introdujo mejoras en la gestión de los establecimientos ya existentes. Además se ocupó, entre otros aspectos, de evitar la transmisión de enfermedades infecciosas, de importar material quirúrgico y productos farmacéuticos, de inspeccionar la calidad y venta de alimentos y de elaborar informes sobre el estado de la sanidad en Euskadi. Además, Espinosa participó en la creación de la Facultad de Medicina de la Universidad Vasca.



"El Lehendakari Aguirre y los consejeros Espinosa y Gracia con los milicianos".
Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua.

"Aguirre lehendakaria eta Espinosa eta Gracia sailburuak milizianoekin".
Irargi. Centro del Patrimonio Documental de Euskadi.




"Haur euskaldunen harrera, Frantzian".

"Recepción de los niños vascos en Francia".

Collection Fernando Gómez Peláez, International Institute of Social History (Amsterdam). Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua. / Centro de Documentación sobre el Bombardeo de Gernika.

## GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEA

Alfredo Espinosak Osasun Sailean egindako kudeaketan espiritu humanitarioa nagusitu zen. Euskadiko Gurutze Gorria eratu zuen, eta haurrak atzerrira ebakuatzeko lanak ikuskatu zituen. Halaber, errefuxiatuez, haur-koloniez, milizianoen umezurtzez, haurtzaindegiez eta ongintzako establezimendu guztiez ere arduratu zen. Nolanahi ere, presoen bizi-baldintzak hobetzeagatik nabarmendu zen batez ere Espinosaren lana, bidegabekeriak zuzendu eta jazarpenak saihestu zituelako. 1937ko urtarrilaren 4an, Bilbon alemanek egindako bonbardaketei erantzuteko Bilboko kartzeletako erasoen ondoren, presondegietan azaldu zen medikuekin eta anbulantziekin, erasoetan zauritutako pertsonak artatu eta eramateko. Eraso horietan 200dik gora preso hil ziren.

## DEFENSOR DE LOS DERECHOS HUMANOS

En la gestión de Alfredo Espinosa al frente del Departamento de Sanidad predominó un espíritu humanitario. Fundó la Cruz Roja del País Vasco, supervisó las evacuaciones de niños al extranjero, se ocupó de los refugiados, de las colonias infantiles, de los huérfanos de los milicianos, de las guarderías infantiles y de todos los establecimientos benéficos. Pero sin duda, uno de los aspectos por los que destacó su labor fue por la mejora de las condiciones de vida de los presos, corrigiendo injusticias y evitando persecuciones. El 4 de enero de 1937, tras el asalto de las cárceles de Bilbao en respuesta a los bombardeos alemanes sobre la capital vizcaína, se presentó en las prisiones con médicos y ambulancias para auxiliar y trasladar a los heridos en los asaltos, que costaron la vida a más de 200 presos.



"Gorlizko Sendategiko haurren ebakuazioa eta leku-aldaketa".

"Evacuación y traslado de los niños del Sanatorio de Gorliz".

GOAZ MUSEUM.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Museo del Nacionalismo Vasco.
Sabino Arana Fundazioa.



"Gorlizko Sendategiko haurren ebakuazioa eta leku-aldaketa".

"Evacuación y traslado de los niños del Sanatorio de Gorliz".

GOAZ MUSEUM.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Museo del Nacionalismo Vasco.
Sabino Arana Fundazioa.

## GORLIZKO HAURREKIN

1937ko ekainaren 11n, Alfredo Espinosa *Warrior* ontzian abiatu zen Frantziara, Gorlizko Erietxeko koloniako 160 haurrekin, zentroko osasun-langileekin eta frankistengandik ihesi zihoazen beste errefuxiatu batzuekin batera. Bidaiaren helburua bidaiari guztiak babestea ez ezik, Eusko Jaurlaritzarako osasun-materiala erostea zen. Hortaz, Baionara iristean, Parisera joan zen, eta, ondoren, berriz, Bordelera. Azken hiri horretan jakin zuen ekainaren 19an Bilbo hartu zutela. Orduan, Santanderrera joanda zegoen Eusko Jaurlaritzako gainerakoekin harremanetan jartzen ahalegindu zen Espinosa.

## CON LOS NIÑOS DE GORLIZ

El 11 de junio de 1937 Alfredo Espinosa partió en el buque *Warrior* con destino a Francia junto con 160 niños de la colonia del Sanatorio de Górliz, el personal sanitario del centro y otros refugiados que huían de la ofensiva franquista. El objeto del viaje era, además de poner a salvo a todos los pasajeros, la compra de material sanitario para el Gobierno Vasco, por lo que al llegar a Baiona se trasladó primero a París y luego a Burdeos, donde se enteró de la caída de Bilbao, el 19 de junio. Espinosa trató entonces de reunirse con el resto del Gobierno Vasco, que se había trasladado a Santander.


BILBAO. 24 junio 1937 NUMERO 3

# BOLETIN DE BILBAO

PRIMER año triunfal NUMERO 3

**En el avión que cayó en las cercanías de Zaráuz viajaba el famoso doctor Espinosa, ministro del ya extinto Gobierno vasco**

**También iban con él otros conspicuos personajes de la pasada etapa tiránica que soportó el españolísimo pueblo vizcaíno**

"Espinosaren atxiloketaren albistea, Boletín de Bilbao egunkari frankistan".
*Boletín de Bilbao*, 1937-06-26.

"Noticia de la captura de Espinosa en el diario franquista Boletín de Bilbao".
*Boletín de Bilbao*, 26-06-1937.




"Espinosaren ibilbidea Bilboko portutik 1937ko ekainaren 11n itsasoratu zenetik Zarautzen ekainaren 21ean atxilotu zuten arte".

"Recorrido de Espinosa desde que sale del puerto de Bilbao el 11 de junio hasta que es detenido en Zarautz el 21 de junio de 1937".

## AZKEN BIDAIA

Bordelen, izena ezkutuan edukitzea lortu gabe saiatu zen Espinosa Santander aldera zihoan merkataritza-ontzi batean itsasoratzen. Azkenean, Eusko Jaurlaritzaren konfiantzazko pilotu José María Yanguas Yáñezekin jarri zen harremanetan, eta Laredoraino eraman zezala eskatu zion. Hasieran, hegazkina matxuraturik zeukala argudiatuz, duda-mudan egon ondoan, baiezkoa eman zion Yanguasek. Okzitaniako Tolosan aireratu zen hegazkina ekainaren 21eko arratsean. Beste bost lagun bidaiatu ziren Espinosarekin batean: haren idazkari Emilio Ubierna, artilleria komandante José Aguirre Urrestarazu, Gizarte Laguntzarako Saileko zerbitzuburu Eugenio Urgoiti, Air Pyrénées konpainiako mekanikari Pablo Martínez eta George Rouge, frantses hiritarra. 21:30etan, matxura bat zuelakoan, lurreratu zen hegazkina Zarauzko hondartzan, hartarako pista bat atondua zen tokian, hain zuzen ere. Hegazkinaren kontra tirorik ez egiteko agindua emana zuten aurretik, eta prest zeuden agintari frankistak hegazkinean zihoazenak atxilo hartzeko.

## EL ÚLTIMO VIAJE

En Burdeos, Espinosa intentó sin éxito embarcarse de incógnito en un mercante con dirección a Santander. Finalmente, contactó con un piloto de confianza del Gobierno Vasco, José María Yanguas Yáñez, al que le pidió que le llevara hasta Laredo. Yanguas, tras unas primeras reticencias, alegando una avería en su avión, accedió a su petición. El aparato despegó desde Toulouse la tarde-noche del 21 de junio. Junto a Espinosa viajaban otras cinco personas: su secretario Emilio Ubierna, el comandante de artillería José Aguirre Urrestarazu, el jefe de negociado del Departamento de Asistencia Social Eugenio Urgoiti, el mecánico de Air Pyrénées Pablo Martínez y el ciudadano francés George Rouge. A las 21:30 horas, simulando una avería, la aeronave aterrizó en la playa de Zarautz, donde previamente se había improvisado una pista de aterrizaje, se había dado orden de no disparar sobre el avión y las autoridades franquistas estaban prestas para detener a sus ocupantes.




"Espinosa Santander aldera eraman behar zuen hegazkina, Zarauzko hondartzan".
Aranzadi Zientzia Elkartea.

"El avión que debía llevar a Espinosa hacia Santandér, en la playa de Zarautz".
Sociedad de Ciencias Aranzadi.



"Air Pyrénées euskal konpainiak eraitsitako hegazkina".
"Avión derribado de la compañía vasca Air Pyrénées".



"Euskal aire armadako pilotuak".
"Pilotos de la aviación vasca".

Collection Fernando Gómez Peláez, International Institute of Social History (Amsterdam). Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua. / Centro de Documentación sobre el Bombardeo de Gernika.

## "ENKARGUETARAKO HEGAZKINA"

Hegazkina urdina eta bi motorrekoa zen, Caudron Renault Göeland C.448 c/n 7272 F.A.O.M.X. modelokoa, 6 zilindroko motorrak zituen eta 220 HP-ko zaldi-potentzia. Eusko Jaurlaritzaren Air Pyrénées aire konpainiakoa zen, eta Frantziako bandera zuen. Itundutako moduan Zarautzen lur hartu eta berehala, hegazkina Errioxako Recajoko aerodromora eraman zuten. Han, ikuskatu eta Espainiako Abiazio Nazionaleko koloreekin margotu zuten. Handik aurrera, Joaquín García Morato komandantearen Ehiza Hegazkinen Taldeko "enkarguetarako hegazkin" gisa erabili zuten Gerra Zibilean. 1939ko apirilaren 30ean, lurra jo zuen Recajoko aerodromoaren inguruetan.

## "EL AVIÓN DE LOS RECADOS"

El avión era un bimotor azul, modelo Caudron Renault Göeland C.448 c/n 7272 F.A.O.M.X. con motores de 6 cilindros y 220 hp., perteneciente a la compañía aérea del Gobierno Vasco Air Pyrénées de bandera francesa. Al poco de su pactado aterrizaje en Zarautz, el avión se dirigió hasta el aeródromo riojano de Recajo para ser revisado y pintado con los colores de la Aviación Nacional. Durante el resto de la Guerra Civil sirvió como "avión de los recados" del Grupo de Caza del comandante Joaquín García Morato. El 30 de abril de 1939 el aparato se estrelló en los aledaños del aeródromo de Recajo.



"Narrostarren Jauregiaren fatxada nagusia, Zarautzen".
Indalecio Ojanguren.
Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

"Fachada principal del Palacio de Narros de Zarautz".
Indalecio Ojanguren.
Archivo General de Gipuzkoa.



"Zarauzko hondartzaren eta Narrostarren Jauregiaren ikuspegia".
Indalecio Ojanguren.
Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

"Vista de la playa y del Palacio de Narros de Zarautz".
Indalecio Ojanguren.
Archivo General de Gipuzkoa.



La Voz de España 3

**Un personaje del gobierno de Euzkadi llovido de los cielos**

**Y aprehendido por nuestras fuerzas en la playa de Zarauz**

**Las victoriosas operaciones de ayer en la margen izquierda de la ría. - Los mineros reciben orden de regresar a Asturias. - Aguirre trató de exigir responsabilidades por la pérdida de Bilbao**

Crónica de nuestro redactor corresponsal FERNANDO ORS

"Espinosaren atxiloketari buruzko albistea kazeta frankistetan".
*La Voz de España* egunkaria, 1931-06-23.

"Noticia del arresto de Espinosa en medios franquistas".
Diario *La Voz de España*, 23-06-1931.

## ATXILOKETA

Troncoso komandanteak (Irungo mugako buruzagia) eta José María Huartek (Zarauzko komandante militarra) atxilotu zituzten hegazkineko bidaiariak. Berehala, Zarauzko hondartzako mutur batean dagoen Narrosko markesaren jauregian zegoen komandantzia militarrera eraman zituzten. Atxiloketari zegokionez, erabateko zentsura agindu zen, gaiari buruzko berriak saihesteko. Hurrengo egunean, ekainaren 22an, justizia militarraren araberako aldez aurreko prozedura judiziala hasi zen, eta deklarazioa hartu zitzaien guztiei, pilotuari izan ezik. Deklarazioa hartu eta segituan, Gasteizera eraman zituzten.

## DETENCIÓN

Los ocupantes del avión fueron detenidos por el comandante Troncoso, jefe de la frontera de Irún, y el comandante militar de Zarautz, José María Huarte. Inmediatamente fueron trasladados a la sede de la Comandancia Militar, sita en el Palacio del Marqués de Narros, en uno de los extremos de la playa de la localidad guipuzcoana. Se ordenó total censura sobre la detención para impedir que se conociese noticia alguna sobre el asunto. Al día siguiente, 22 de junio, se inició el procedimiento judicial previo con arreglo al código de justicia militar, tomándoseles declaración, exceptuando al piloto. Inmediatamente después fueron trasladados a Vitoria.



"Karmeldarren komentua 1918. urte aldera".
Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa.

"Convento de los carmelitas hacia 1918".
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.



"Karmeldarren komentua 1963. urte aldera".
Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa.

"Convento de los carmelitas hacia 1963".
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.

## GALDEKETAK

Gasteizen, Karmengo komentuan sartu zituzten atxilotuak. Hurrengo egunean, ekainaren 23an, hasi ziren galdeketak. Espinosari bere lotura politikoei buruz galdetu zioten, baita izandako kargu publikoei eta Frantziara bidaiatzeko arrazoiari buruz ere, besteak beste. Agintari frankistek enfasi berezia jarri zuten Bilboko espetxeen erasoetan Espinosak izan zuen parte-hartzean, eta Espinosak zera erantzun zien: bere parte-hartze guztia jendetza bideratzera eta gehiegikeriak saihestera mugatu zela.

## INTERROGATORIOS

En Vitoria los detenidos fueron recluidos en el convento de El Carmen. Al día siguiente, 23 de junio, comenzaron los interrogatorios. Espinosa fue preguntado por sus vinculaciones políticas, los cargos públicos desempeñados y la causa de su viaje a Francia, entre otras cuestiones. Las autoridades franquistas pusieron el énfasis en su actuación durante los asaltos a las prisiones de Bilbao, contestando Espinosa que "toda su actuación tendió a encauzar las masas y a evitar que cometieran desmanes".



"Karmeldarren komentua 1918. urte aldera".
Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa.

"Convento de los carmelitas hacia 1918".
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.

**Varias personalidades leales condenadas a muerte por los traidores en Guipúzcoa**

(Exclusivo de «La Vanguardia».) Bayona, 24. — Según informaciones recibidas de la oficina de Prensa del Gobierno vasco, los cabecillas rebeldes de Guipúzcoa han condenado a muerte al consejero de Sanidad del Gobierno del País Vasco, doctor Espinosa; a su secretario, el capitán de artillería, vasco, Aguirre, y al auxiliar de la Legación de Vasconia en París, Urgoiti, hechos prisioneros al verse obligado a aterrizar el avión en que viajaban en las cercanías de San Sebastián, por falta de bencina. Se ignora a qué penas han sido condenados el piloto mecánico y el quinto pasajero del avión, que era un teniente francés de la reserva.—Havas.

"Espinosa hiltzeko epaiari buruzko albistea".
*La Vanguardia* egunkaria, 1937-06-25.

"Noticia de la condena a muerte de Espinosa".
Diario *La Vanguardia*, 25-06-1937.

## GERRA-KONTSEILUA

Galdeketak amaitu ondoren, lau auzipetuei (Espinosa, Aguirre, Ubierna eta Urgoiti) epaiketa sumarisimoa egin zieten. Epaiak heriotza-zigorra ezarri zien prozesatuei. Ekainaren 24an, Ubiernari eta Urgoitiri heriotza-zigorraren ordez, biziarteko kartzela-zigorra ezarri zieten. Eusko Jaurlaritza, auzipetzearen eta epaiaren berri izan ondoren, Espinosa trukatzen saiatu zen, baina ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren, Francoren beraren zorrozkeria zela-eta.

## CONSEJO DE GUERRA

Tras los interrogatorios, los cuatro encausados (Espinosa, Aguirre, Ubierna y Urgoiti) fueron sometidos a juicio sumarísimo. La sentencia dictó pena de muerte para los procesados. El 24 de junio, Ubierna y Urgoiti vieron conmutada su pena por la de cadena perpetua. El Gobierno Vasco, al conocer el procesamiento y la sentencia, intentó canjear a Espinosa, pero todas las iniciativas fueron infructuosas debido a la intransigencia del propio Franco.



"Santa Isabel hilerriko hormak, bertan egiten zituzten fusilamenduak".
Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa.

"Tapias del cementerio de Santa Isabel, lugar en el que se llevaban a cabo los fusilamientos".
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.



"Santa Isabel hilerriko atari nagusia 1958. urte aldera".
Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa.

"Puerta principal del cementerio de Santa Isabel hacia 1958".
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz.



zko Deya

E EUZKADI · LA VOIX DES BASQUES

Paris, 1er Juilet 1953 — 50, Rue Singer (X

Pasión y muerte de Alfredo Espinos

por FERNANDO VALER

"Fernando Varela buruzagi errepublikanoak Espinosaren heriotza oroitzeko idatzitako artikulua".
*Euzko Deya,* 1953-07-1.

"Artículo del dirigente republicano Fernando Valera recordando la muerte de Espinosa".
*Euzko Deya,* 1-07-1953.

## FUSILAMENDUA

1937ko ekainaren 26ko egunsentian, larunbatez, Alfredo Espinosa eta José Aguirre Urrestarazu fusilatu zituen Eraso Taldeko 12 pertsonez osatutako pelotoi batek, eta haien gorpuak Gasteizko Santa Isabel hilerrian hilobiratu zituzten. Hil bezperako gauean, ekainaren 25ean, ostiralez, Alfredo Espinosak lau gutun gutxienez idatzi zituen: bata, emazteari eta seme-alabei; beste bat, amari; hirugarren bat, Carlos Labra lagun eta alderdikideari, eta azkena, berriz, Aguirre lehendakariari.

## FUSILAMIENTO

La madrugada del 26 de junio de 1937, sábado, Alfredo Espinosa y José Aguirre Urrestarazu fueron fusilados por un pelotón de 12 números del Cuerpo de Asalto, siendo sus cuerpos inhumados en el cementerio de Santa Isabel de Vitoria. La noche anterior a su muerte, el viernes 25 de junio, Alfredo Espinosa la pasó escribiendo al menos cuatro cartas. Una dedicada a su esposa e hijos, otra a su madre, otra a su amigo y correligionario Carlos Labra y una última al Lehendakari Aguirre.



Excelentísimo Señor Presidente del Gobierno Provisional de Euzkadi.

D. José Antonio Aguirre

Mi querido amigo y compañero: Me dirijo a ti en nombre de todo el Gobierno momentos antes de ser ejecutado en la prisión de Vitoria, [illegible]

[illegible]

y mi [illegible] mujer, no los abandones por Dios te lo pido.

Adiós mi más querido amigo y siempre Presidente [illegible] Gora Euzkadi, Viva la República. Cuando la historia nos juzgue a todos [illegible] la muerte a los [illegible] y por llevar el respeto absoluto a toda idea por opuesta que fuera a la nuestra.

Te abraza hasta siempre

Alfredo Espinosa

"Alfredo Espinosaren gutuna Aguirre Lehendakariari".

"Carta de Alfredo Espinosa al Lehendakari Aguirre".

GOAZ MUSEUM.
Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Museo del Nacionalismo Vasco.
Sabino Arana Fundazioa.

## TESTAMENTUA

Lehendakariari idatzitako gutunean, heriotza-zigorrera kondenatutakoak indultatzearen eta presoak trukatzearen alde agertu zen Espinosa. Halaber, askatasunaren alde hiltzeagatik eta Errepublikaren urteetan herriak lortutako garaipenengatik harro zegoela adierazi zuen, eta garai hartan Miarritzen bizi zen bere familia eta José Aguirre Urrestarazuren familia babesteko eskatu zion lehendakariari.

## TESTAMENTO

En carta al Lehendakari, Espinosa se manifiesta favorable al indulto para los condenados a muerte y al canje de prisioneros. Asimismo, se muestra orgulloso de morir por la causa de la libertad y por las conquistas ganadas por el pueblo en los años republicanos. Pide al Lehendakari protección para su familia, afincada entonces en Biarritz, y para la familia de José Aguirre Urrestarazu.

## CARTA DE ESPINOSA AL LEHENDAKARI AGUIRRE

*Excelentísimo Señor Presidente del Gobierno Provisional de Euscadi.*

*Sr. D. José Antonio Aguirre.*

*Mi querido amigo y compañero:*

*Me dirijo a ti en nombre de todo el Gobierno momentos antes de ser ejecutado en la prisión de Vitoria. Como sabrás, caímos prisioneros en la plaza de Zarauz por avería del avión o traición del piloto Yanguas, he sido juzgado y condenado a muerte y hoy dentro de dos horas será cumplida la sentencia, como verás no me asusta la muerte, pero he pasado unas horas tremendamente amargas en espera de ser ejecutado, con la terrible inquietud de esperar el minuto en que había de morir.*

*Quiero dirigirte un ruego antes de que vuelva al seno de la tierra y es el siguiente, cuando condenen los tribunales a alguno a muerte mi voto desde el otro mundo es siempre por el indulto, pues pienso en que pueda tener madre o esposa e hijos y la terrible condena siempre la sufrirán personas inocentes, pídeles tú a mis compañeros en mi nombre lo que yo te pido y os suplico no ejerzáis represalias con los presos que hoy tenéis, pues bastante han sufrido como sufro yo. Al que no esté procesado en estos momentos ponerlo en libertad sin que esto quiera decir que no estén vigilados.*

*Dile a nuestro pueblo que un consejero del Gobierno muere como un valiente y que gustoso ofrenda su vida por la libertad del mismo. Diles asimismo que pienso en todos ellos con toda mi alma y que muero no por nada deshonroso sino todo lo contrario, por defender sus libertades y sus conquistas legítimamente ganadas en tantos años de lucha, que mi muerte sirva de ejemplo y de algo útil en esta lucha cruel y horrible.*

*Mi mujer y mis hijos están en Biarritz, Rue Boncher, nº 21, Villa France, yo te ruego que la paga que yo recibía como consejero la cobren ellos allí; y si el triunfo es nuestro no los abandonéis sino que de tu gran corazón espero sepáis atenderlos lo mejor posible, pues no tienen más amparo que yo.*

*Asimismo, te ruego dejes salir de España para dirigirse a Francia a mi padre el Presidente del Tribunal Popular, a mi hermano Manuel, teniente de infantería, a mi suegro Manuel Gómez Mazo y a mi entrañable amigo Juan Soloaga asimismo, teniente de la misma arma.*

*A todos mis compañeros de Gobierno un abrazo muy fuerte, abrazo de amigo y de hermano de lucha y sacrificio en esta guerra terrible y cruel.*

*Mis pobres hijos háblales cuando sean mayores de su padre y diles que les he querido con toda mi alma y que sigan mi ejemplo que quieran a su pueblo como yo le quise y si puedes consolar a mi pobre mujer tu que tienes talento hazlo pues pensando en ella se desgarra mi alma. Ayer creo que fusilaron a Lagaseta –otro mártir más– hay muchos condenados a muerte. Haced el canje lo antes posible de todos ellos pues la vida en esas condiciones es terrible y cuanto hagáis por mitigar sus dolores será bien poco, pues todos ellos sufren lo mismo que he sufrido yo y el pobre capitán de artillería Aguirre que conmigo iba a cumplir su deber en Bilbao o en Santander, cuando tantos compañeros nuestros huían con rumbo a Francia, nosotros íbamos a cumplir con nuestro deber. Él también tiene hijos en Barcelona, no los desamparéis y protegerlos vosotros.*

*Termino pues no tengo tiempo para más, pues falta muy poco tiempo para la ejecución. Háblales a todos de la virtud del deber cumplido y diles que es preferible la muerte a traicionar las virtudes y el alma de una raza.*

*Te repito lo de mis hijos y lo de mi mujer: no los abandonéis, por Dios te lo pido.*

*Nada más, querido amigo y siempre Presidente. Un abrazo muy fuerte y Gora Euscadi y Viva la República. Cuando la historia nos juzgue a todos sabrán que nosotros hicimos lo indecible por evitar la muerte a los presos y por conservar el respeto absoluto a toda idea por opuesta que fuera a la nuestra.*

*Te abraza hasta siempre.*

*Alfredo Espinosa.*

## ESPINOSA, ESPAINIAKO II. ERREPUBLIKAREN METAFORA

Alfredo Espinosa Orive bat zetorren garai hartako errepublikano bilbotarren ereduarekin: gizarte-jatorri diruduneko pertsona zen, familian tradizio errepublikanoa zuen eta lanbide liberala zeukan. Oso goiz lotu zitzaion errepublikanismoari, Madrilen egindako ikasketa-egonaldiak estatuko lider errepublikano gailenekin harremanetan jartzeko aukera eskaini zion eta, gainera, haien oso laguna izan zen. Gaztea izan arren, Espinosak oso azkar egin zuen bere ibilbide politikoa, eta horrek erakusten digu oso kudeatzaile ona zela. Bizitza laburra baina bizia izan zuen, bere ibilbidea demokratikoa izan zen zalantzarik gabe, eta amaiera tragikoa izan zuen. Horiek guztiak, Espainiako II. Errepublikari eta bera partaide izan zen lehenengo Eusko Jaurlaritza hari gertatutakoaren metaforatzat har ditzakegu.

## ESPINOSA, METÁFORA DE LA II REPÚBLICA ESPAÑOLA

Alfredo Espinosa Orive responde al prototipo de republicano bilbaíno de la época: una persona de extracción social acomodada, con tradición republicana familiar y que desempeñaba una profesión liberal. Su vinculación al republicanismo fue muy temprana y su estancia estudiantil en Madrid le ofreció la oportunidad de tomar contacto con destacados líderes republicanos nacionales con quienes mantuvo una buena amistad. A pesar de su juventud, la trayectoria política de Espinosa fue vertiginosa, lo que nos habla de su valía como gestor. Su corta pero intensa vida, su trayectoria inequívocamente democrática y su trágico final son una metáfora de lo que le ocurrió a la Segunda República española y al primer Gobierno Vasco al que perteneció.



1903-1937

# ALFREDO
# ESPINOSA

**ERREPUBLIKANO**
BAT EUSKADIREN
ZERBITZURA

**UN REPUBLICANO**
AL SERVICIO
DE EUSKADI

# ALFREDO ESPINOSA ETA EUSKAL ERREPUBLIKANISMOA

Bilboko errepublikanismo garrantzitsuaren azken belaunaldikoa zen Alfredo Espinosa Orive (Bilbo, 1903 - Gasteiz, 1937). Lehenengo belaunaldikoa izan zen, berriz, I Errepublika lehenengo pertsonan bizi eta tokiko errepublikanismoaren aurreneko urratsak egin zituen belaunaldikoa, Salustiano Orive Oteo amaren aldeko aitona, Bizkaiko hiriburuan egokitutako botikari errioxarra. Harexek sortu zuen "Licor del Polo" hortzetako orea, aberats bihurtu zuena. Francisco Pi y Margallen Partido Republicano Federal alderdiko militantea izan zen Salustiano Orive, eta ardurako karguak bete zituen hala toki nola nazio mailan.

Hizpide ditudan belaunaldi hauetako bigarrenean kokatu behar da Alfredoren aita José Espinosa Rodríguez, 1900. urtetik aurrera Bilboko errepublikanismoaz arduratu zen belaunaldian, hain zuzen ere. Sortzez Granadakoa zen José, baina gaztetandik jarri zen bizitzen Bizkaiko hiriburuan, eta iragan mendeko lehenengo hereneko Bilboko abokatu ezaguna izan zela esan behar dugu, ideia errepublikanoak zituen abokatu ezaguna. "El Sitio" elkarte liberaleko kidea, gerra zibilaren garaian Bizkaiko Herri Epaitegiko presidentea izan zen José Espinosa, baita ha-

# ALFREDO ESPINOSA Y EL REPUBLICANISMO VASCO

Alfredo Espinosa Orive (Bilbao, 1903 - Vitoria, 1937) perteneció a la última generación del importante republicanismo bilbaíno. A la primera de esas generaciones, la que vivió en primera persona la I República y el sitio de Bilbao y protagonizó los primeros pasos del republicanismo local, perteneció su abuelo materno, Salustiano Orive Oteo, un farmacéutico riojano instalado en la capital vizcaína que fue el creador del dentífrico "Licor del Polo", con el que se hizo rico. Salustiano Orive militó en el Partido Republicano Federal de Francisco Pi y Margall, donde ostentó responsabilidades tanto a nivel local como nacional.

José Espinosa Rodríguez, el padre de Alfredo, perteneció a la segunda de estas generaciones a las que me estoy refiriendo, la que se hizo cargo del republicanismo bilbaíno a partir de 1900. José, granadino de nacimiento pero instalado desde edad temprana en la capital vizcaína, fue un conocido abogado de ideas republicanas del Bilbao del primer tercio del siglo pasado. Miembro de la sociedad liberal "El Sitio", José Espinosa ostentó durante la época de la guerra civil la presidencia del Tribunal Popular de Vizcaya y fue Asesor Jurídico del

ren semea zuzendari zuen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Aholkulari Juridikoa ere.

Familia aurrekari hauekin, ia behartuta zegoen Alfredo Espinosa alderdi errepublikanoko militante izatera, baina alderantzizko bidea egin zuela esan behar dugu; izan ere, lehenik bere lekua lortu zuen nazio mailako errepublikanismoan gero herrialde mailako errepublikanismoan egokitzeko. Errepublikanoen hirugarren eta azken belaunaldi honek presentzia nabarmena izan zuen II. Errepublikaren garaian.

Esan bezala, Madrilen ikasten aritu zen garaian izan zituen Alfredo Espinosak lehenengo hartu-eman ofizialak errepublikanismoarekin. 1919. urtean joan zen Madrilera Medikuntza ikasketak egitera, eta 1926. urtean lizentziatu zen. Han harremanetan jarri zen Primo de Riveraren Diktaduraren aurka ari ziren buruzagi errepublikano batzuekin, Álvaro de Albornozekin eta Félix Gordón Ordásekin, esate baterako, gerora ere oso lagun onak izango zituenekin. Hala bada, Primo de Riveraren erregimena erorarazteko saio errepublikano batzuetan hartu zuen parte Espinosak, eta 1926ko *sanjuanada* deitutako batzorde iraultzaileetako kidea izan zen, baita 1930ko abenduko *Jacako matxinada* eragingo zuen mugimenduko kidea ere.

Besteak beste, Marcelino Domingo, Álvaro de Albornoz eta Félix Gordón Ordás buru zituen Partido Republicano Radical Socialista alderdia sortzeko lanetan ibili zen Espinosa Madrilen 1929. urtean. Alderdia sortzeko itunaren sinatzaileen artean ez da haren izena agertzen, gaztea izanik errepublikanoen belaunaldi gazteen artean baitzegoen Espinosa, eskarmentu handiagoa zuten politikarien gibelaldean.

Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, que dirigía su propio hijo.

Con estos antecedentes familiares, Alfredo Espinosa estaba casi obligado a militar en el campo republicano, a pesar de lo cual llego a él recorriendo un camino inverso, pues primero se hizo un nombre en el republicanismo nacional para posteriormente llegar al republicanismo provincial. Esta tercera, y última, generación de republicanos será la que tenga una importante presencia durante la II República.

Alfredo Espinosa, como decimos, tuvo sus primeros contactos de forma oficial con el republicanismo durante su estancia estudiantil en Madrid. Allí había ido a cursar la carrera de Medicina en 1919, licenciándose en 1926, y allí estableció relación con algunos de los líderes republicanos del momento, opuestos a la Dictadura de Primo de Rivera, como fueron Álvaro de Albornoz y Félix Gordón Ordás, con quienes posteriormente mantuvo una estrecha amistad. De esta forma, Espinosa participó en varias de las intentonas republicanas por derrocar al régimen primorriverista, formando parte de los comités revolucionarios de la denominada sanjuanada de 1926 y del movimiento que desembocó en la sublevación de Jaca de diciembre de 1930.

En 1929 Espinosa participó en Madrid en la fundación del Partido Republicano Radical Socialista que lideraban Marcelino Domingo, Álvaro de Albornoz y Félix Gordón Ordás, entre otras personalidades. Si bien su nombre no aparece entre los firmantes del acuerdo fundacional, Espinosa pertenecía por su juventud a la nueva generación republicana, situada

Handik gutxira, 1930eko udazkenean, Bilboko PRRS alderdia sortzeko lanetan lagundu zuen Alfredo Espinosak, eta alderdiaren tokiko batzordeko presidenteordea izan zen hasieran. Gero, 1931 eta 1933 bitartean, aipatutako batzorde horretako presidentea izan zen, eta baita alderdiaren herrialdeko batzordeko presidenteordea ere. 1931 eta 1933 bitartean PRRS alderdia bigarren garrantzitsuena izango zen Bizkaiko alderdi errepublikanoen artean, Manuel Azañaren Acción Republicana alderdiaren atzetik, Partido Republicano Autónomo de Vizcaya alderdia, Bizkaian 1913 eta 1931 bitartean zegoen alderdi errepublikano bakarra, sartua izanik hartan. AR eta PRRS alderdien atzetik egokitu ziren, askoz ere babes txikiagoarekin ordea, beste alderdi errepublikanoak, Partido Radical, Derecha Liberal Republicana eta Agrupación al Servicio de la República alderdiak, besteak beste.

Monarkiaren aurkako koalizioko kidea izan zen PRRS beste alderdi errepublikanoekin, PSOE eta EAE alderdiekin batean, eta erregimenaren aldaketa eragingo zuten 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetara aurkeztu zen. Monarkiaren aurkakoen garaipena erabatekoa izan zen hauteskunde haietan, eta gehiengoa lortu zuten Bilboko Udalean, Ernesto Ercoreca buru izanik. Udal hartan 12 zinegotzi zegozkien errepublikanoei, 8 bereizi ziren errepublikano autonomoen artean banatzeko, 3 muturreko sozialisten artean banatzeko eta bestea Derecha Liberal Republicana alderdiko ordezkariaren esku uzteko. Horri esker iritsi zen lehenengo aldiz Alfredo Espinosa kargu publiko batera. Geroago uko egin zion zinegotzi karguari Burgos eta Logroño probintzietako Gobernadore Zibil

en un lugar secundario, por detrás de hombres con mayor experiencia.

Poco tiempo después, en otoño de 1930, Alfredo Espinosa colaboró en la fundación del PRRS de Bilbao, en el que en un primer momento ostentó la vicepresidencia del comité local del partido, para ocupar posteriormente la presidencia del mismo entre 1931 y 1933 así como la vicepresidencia del comité provincial de la formación. El PRRS se situó, entre 1931 y 1933, como el segundo partido republicano vizcaíno en importancia tras Acción Republicana, el partido de Manuel Azaña, en el que se había integrado el Partido Republicano Autónomo de Vizcaya, el partido republicano único de la provincia entre 1913 y 1931. Por detrás de AR y PRRS, y con una implantación muy minoritaria, se situaron el resto de partidos republicanos, como el Partido Radical, la Derecha Liberal Republicana o la Agrupación al Servicio de la República.

El PRRS formó parte de la coalición antimonárquica, junto con el resto de partidos republicanos, el PSOE y ANV, que se presentó a las elecciones municipales del 12 de abril de 1931, las que propiciaron el cambio de régimen. La victoria en aquellas elecciones fue aplastante por parte de los antimonárquicos, que se hicieron con la mayoría del Ayuntamiento bilbaíno, que presidió Ernesto Ercoreca. A los republicanos les correspondieron 12 concejalías en aquel Ayuntamiento que fueron distribuidas en 8 para los republicanos autónomos, 3 para los radicales socialistas y 1 para la Derecha Liberal Republicana. De esta forma, Alfredo Espinosa accedió por primera vez en su vida a un cargo público.

izendatu zutelako, nazio mailako buruzagi errepublikanoekin zuen harreman onaren erakusgarri.

Muturreko sozialismoak tokiko 39 talde zituen 1933. urtean, gehien-gehienak Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren ezkerraldean eta Bizkaiko hiriburua inguratzen zuen industria zerrendan. Muturreko sozialismoak, esate baterako, eutsi egin zion Portugaleteko alkatetzari Federico Sánchez-Vallejoren bidez, Lizarrako Estatutuaren proiektuaren kontrako oposizio azkarra bideratu zuen politikaria hura. Estatu espainiarra federazioetan antolatzearen aldekoa zen PRRS alderdia, udal eta eskualde mailako autonomiei eutsita baina nazionalismo oro baztertuta. Euskal Estatutuari dagokionez, hura onartzearen eta legebiltzarrean tramitatzearen alde agertu ziren muturreko sozialistak, Gorteetan estatutuen testuari emendakin batzuk egingo zizkiotela iragarri bazuten ere, haien esanetan ez baitzuten aurre-proiektuaren erredakzioan esku hartu.

PRRS alderdiaren hausturaren aurrean, 1933ko udan, muturreko sozialista independenteen buru Marcelino Domingoren tesien alde agertu ziren Bizkaiko muturreko sozialista gehienak, eta gutxi batzuek baizik ez zuten jarraitu Félix Gordón Ordásen eta haren muturreko sozialista ortodoxoen alboan. Gordón Ordás lagun minaren ondoan jarraitu zuen Alfredo Espinosa Orivek, eta herrialdeko errepublikanismo nagusitik aldendu zen horrenbestez.

Muturreko sozialista independenteek Acción Republicana alderdiarekin bat egin zuten 1934an Izquierda Republicana osatzeko; ortodoxoek, berriz, Diego Martínez Barrioren muturreko demokratekin egin zuten bat, Lerrouxen erradika-

Posteriormente renunciaría al cargo de concejal por haber sido nombrado Gobernador Civil de las provincias de Burgos y Logroño, cargos a los que fue elevado debido a su buena relación con los dirigentes republicanos nacionales.

El radical socialismo contó en Vizcaya con 39 agrupaciones locales a la altura de 1933, concentradas en su mayor parte por la margen izquierda de la ría del Nervión-Ibaizabal y el cinturón industrial que rodeaba a la capital vizcaína. Como ejemplo, cabe decir, que el radical socialismo mantenía la alcaldía de Portugalete en la persona de Federico Sánchez-Vallejo, un hombre que protagonizó una enconada oposición al proyecto de Estatuto de Estella. El PRRS defendía una nueva articulación del Estado español sobre la base federal con el reconocimiento de las autonomías municipales y regionales, aunque rechazaban todo nacionalismo. En cuanto al tema del Estatuto vasco, los radicales socialistas se mostraron favorables a su aprobación y a su trámite parlamentario, a pesar de que anunciaban la presentación de algunas enmiendas al texto estatutario en las Cortes puesto que, decían, ellos no habían colaborado en la redacción del anteproyecto.

Ante la ruptura del PRRS, acaecida durante el verano de 1933, la mayor parte del radical socialismo vizcaíno se alineó con las tesis de Marcelino Domingo, los radical socialistas independientes, mientras que solamente una minoría siguió a Félix Gordón Ordás y sus radical socialistas ortodoxos. Alfredo Espinosa Orive siguió los pasos de su íntimo amigo Gordón Ordás, lo que le costó apartarse del grueso del republicanismo de la provincia.

lismotik bereiziak haiek, Unión Republicana alderdia sortzeko. Alderdiaren tokiko batzordeko presidente aukeratu zuten Espinosa, hautesleen artean oso eragin txikia zuen alderdia, inolaz ere, lehen esan dugun bezala, garai hartan Izquierda Republicana alderdiaren alde baitzeuden Bizkaiko errepublikano gehien-gehienak.

Unión Republicana Fronte Popularraren koalizioko kide izan zen Bizkaian, Izquierda Republicana, PSOE eta Alderdi Komunistarekin batean. 1936ko Gorteetarako hauteskundeei begira hautagaiak banatzeko garaian, Espinosak beteko zuen postu bat egokitu zitzaion Unión Republicanari Bizkaia-Herrialdea barrutiko hautagaien zerrendan, ezkerreko alderdientzat arrakasta izateko oso aukera txikiak zituen barrutian, hain zuzen ere, alderdi hauek Bilboko barrutiko hautagaien zerrendetan baitzituzten jarriak itxaropen guztiak. Bilboko barrutian bi sozialistek, komunista batek eta Izquierda Republicana alderdiko errepublikano batek osatu zuten hautagaien zerrenda.

Errepublikaren aurkako altxamendu militarra gertatu zenean, Alfredo Espinosa izan zen bere alderdiaren ordezkari legezko errepublika babesteko sortu ziren erakunde guztietan. Halatan, Errepublika Babesteko Komisariotza Nagusiko osasun ordezkari izendatu zuten, Bizkaia Babesteko Batzordeko Komunikazio Zuzendari, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailburu. Espinosa izan zen, Merkataritza eta Hornidura Sailburu Ramon Aldasororekin batean, Izquierda Republicana alderdiak Gobernu hartan zuen sailburu errepublikanoetako bat.

Gudaroste frankistek Bilbo mendean hartu eta egun gutxira modu tragikoan hil zen Alfredo

Los radical socialistas independientes acabarían por unirse con Acción Republicana en 1934 para dar lugar a Izquierda Republicana, mientras que los ortodoxos se unieron a los radicales demócratas de Diego Martínez Barrio, que se habían separado del radicalismo lerrouxista, para fundar el partido Unión Republicana. Espinosa fue elegido presidente del comité local del partido, un partido con una influencia muy reducida entre el electorado pues, como decimos, el grueso del republicanismo vizcaíno se encontraba en ésta época alineado con la Izquierda Republicana.

Unión Republicana formó parte de la coalición del Frente Popular en Vizcaya junto a Izquierda Republicana, PSOE y el Partido Comunista. En el reparto de candidaturas para las elecciones a Cortes de 1936, a Unión Republicana le correspondió un puesto en las candidaturas por el distrito de Vizcaya-Provincia, que ocupó el propio Espinosa, un distrito con muy escasas posibilidades de éxito para los partidos de izquierda, que fiaban todo su éxito a las candidaturas del distrito de Bilbao, donde las candidaturas fueron ocupadas por dos socialistas, un comunista y un republicano de Izquierda Republicana.

Una vez que se produjo la sublevación militar en contra de la República, Alfredo Espinosa representó a su partido en todos los organismos que se fueron creando para la defensa de la legalidad republicana. Así, fue nombrado delegado de sanidad de la Comisaría General de la Defensa de la República en Bizkaia, Director de Comunicaciones en la Junta de Defensa de Bizkaia y, finalmente, Consejero de Sanidad

Espinosa, eta horrek kultura politiko errepublikanoaren amaiera ekarri zuen Bizkaira. Horrenbestez, betikoz amaitu zen kultura politiko hori, tradizio liberaletik eta muturreko demokraziatik, Bilboko setioen oroitzapenetik eta 1836ko abenduaren 25eko eta 1874ko maiatzaren 2ko ospakizunetatik elikatzen zena eta "El Sitio" Elkartean biltzen zena.

Gerrak aurrean eraman zuen etorkizun eta prestakuntza maila handiko euskal politikaria, gaztea izan arren ibilbide politiko luzea egina, ezker errepublikako alderdi politiko bateko buru izana eta herri, autonomia nahiz nazio mailan ardura publikoko hainbat kargu izan zituena.

Euskal errepublikanismoak, eta espainiarrak, oro har, beste kultura politiko batzuek ez bezala, ez zuten lortu Diktaduraren hesia gainditzea, eta ahanzturan galtzen utzi zituzten politikari handi batzuk, orain berreskuratzen hasi garen Alfredo Espinosa Orive, besteak beste.

JON PENCHE
Euskal Herriko Unibertsitatea

del Gobierno Vasco. En este sentido, Espinosa fue uno de los dos consejeros republicanos de aquel Gobierno junto a Ramón Aldasoro, Consejero de Comercio y Abastecimiento, que representaba a Izquierda Republicana.

Su trágica muerte, acaecida pocos días después de la toma de Bilbao por las tropas franquistas, representó el final de la cultura política republicana en Bizkaia. Esa cultura política que bebía de la tradición liberal y de la democracia radical, del recuerdo de los sitios de Bilbao, de las conmemoraciones del 25 de diciembre de 1836 y del 2 de mayo de 1874, y que tenía su punto de encuentro en la Sociedad "El Sitio".

La guerra se llevó por delante a uno de los políticos vascos más prometedores y mejor formados, que a pesar de su juventud había desarrollado una vertiginosa carrera política ostentando el liderazgo de uno de los partidos políticos de la izquierda republicana, desempeñando cargos de responsabilidad pública a nivel local, autonómico y nacional.

El republicanismo vasco, y español en general, al contrario de lo que ocurrió con otras culturas políticas, no consiguió superar la barrera de la Dictadura, dejando caer en el olvido a destacadas personalidades políticas, como es el caso de Alfredo Espinosa Orive, que ahora comenzamos a rescatar.

JON PENCHE
Universidad del País Vasco

# EUSKAL SANITATEA GERRA GARAIAN (1936-1937)

1936ko urriaren 7an Jose Antonio Agirre aukeratu zuten *Euzko Jaurlaritzako* aurreneko *Lehendakari*. Aurrez EAJren eta Fronte Popularra osatzen zuten bost alderdien artean negoziatutako gobernu programaren eta gobernua osatzen zuten kideen berri eman zuten Gernikako Batzar Etxean izandako ekitaldi berean. Unión Republicana1 alderdiko Alfredo Espinosa izendatu zuten Osasun Sailburu, eta Lehendakaria bera izendatu zuten Defentsa Ministerioko agintari goren.

Handik egun batzuetara zehaztu zituzten "Osasun Sailaren", "Osasun Zibilaren Saila" eta Defentsa Ministerioaren mendeko "Osasun Militarraren Buruzagitza" ere deituko zitzaionaren, egitekoak, eta 1936ko urriaren 13an Fernando Untzeta izendatu zuten Osasun Militarreko Agintari Goren. Bestalde, osasun arloko langile guztiak militar bihurtuko zituen dekretua eman zuten argitara, eta langileen artean "mailak" bereizi zituzten "ezinbesteko agintaritza taldeak" antolatu ahal izateko[2].

Sortu zirenean, funtsean Bizkaiko herrialdeko zentroak eta osasun langileak ziren Osasun Sailak eta Osasun Militarreko Agintaritzak

# LA SANIDAD VASCA EN TIEMPO DE GUERRA (1936-1937)

El 7 de octubre de 1936 José Antonio Aguirre fue elegido primer Presidente o Lehendakari del Gobierno de Euzkadi. En el mismo acto, celebrado en la Casa de Juntas de Gernika, hizo público el programa de gobierno y la lista de sus componentes que había sido negociada previamente entre el PNV y los cinco partidos del Frente Popular. La Consejería de Sanidad quedó en manos de Alfredo Espinosa, de Unión Republicana[1], mientras que Defensa quedaba en manos del propio Lehendakari.

Unos días más tarde se delimitaron las funciones de la "Consejería de Sanidad", a la que también se le denominaría "Consejería de Sanidad Civil", y de la "Jefatura de Sanidad Militar", dependiente de Defensa, publicando el nombramiento de Fernando Untzeta como Jefe Superior de Sanidad Militar el 13 de octubre de 1936. También se publicó un Decreto militarizando todo el personal sanitario y estableciéndose "grados" en el personal para "revestirles de la necesaria autoridad"[2].

Los recursos con que contaban, cuando nacieron, la Consejería de Sanidad y la Jefatura de Sanidad Militar eran, fundamentalmente, los

zeuzkaten baliabide bakarrak, Araba osoa altxamendu militarraren aurreneko egunetan geratu baitzen matxinoen mende, eta Gipuzkoa ia osoa oste frankistek konkistatua baitzen irailean. 1908. urtean inauguratu eta Karitate Batzorde batek kudeatzen zuen Basurtoko Ospitale Zibila[3] zen Eusko Jaularitzak zeukan ospitale nagusia, instalazio modernoak eta eskarmentu handiko medikuak baitzeuzkan haren zerbitzura. Basurtoko ospitalearekin batean bazeuden beste osasun zentro publiko batzuk, esate baterako, Bermeoko eta Zaldibarko Sendategi Psikiatrikoak, Gorlizko Itsas Erietxea[4], Plentziako Sendategia, Santurtziko San Juan de Dios Ospitalea, Tuberkulosiak jota zeudenak hartzen zituen Artategia[5], Ama Etxea eta beste zentro xumeago batzuk ere, gaitz benereoei emandako Cantera plazako Ospitalea adibidez, eta hainbat klinika pribatu.

Osasun arloko langileei dagokienez, esan behar dugu sendagileek beren kabuz lan egiten zutela Bilbon eta hiri nagusietan. Kontsultategia etxean bertan zuten sendagileekin batean mediku titularrak zeuzkaten udalerri askok eta askok. Bilbokoa[6] izan zen sendagileen talde hau eta osasun-laguntza ongien antolatuta zituen udala, baita pandemia handiei aurre egiteko ere. Osasun arloko profesional talde honi eta osasun zentroei esker, gutxienez ikusgarritzat kalifikatu beharko genituzke XX. mendearen lehenengo erdialdean gaixotasunak kontrolpean edukitzeko lortu ziren emaitzak[7].

centros y el personal sanitario de la provincia de Bizkaia ya que casi toda Alava quedó desde los primeros días de la sublevación militar en manos de estos, y casi toda Gipuzkoa fue conquistada por las tropas franquistas el mes de septiembre. La principal institución hospitalaria que disponía el Gobierno Vasco, con modernas instalaciones y un excelente cuadro médico, era el Hospital Civil de Basurto[3], inaugurado en 1908 y gestionado por una Junta de Caridad. Junto al Hospital de Basurto, debemos citar otros centros sanitarios públicos como los Sanatorios Psiquiátricos de Bermeo y Zaldibar, el Sanatorio Marino de Gorliz[4], su vecino Sanatorio de Plentzia, el Hospital San Juan de Dios de Santurtzi, el Dispensario Antituberculoso[5], la Casa de Maternidad y otros menores como el Hospital de la plaza de la Cantera, dedicado a enfermedades venéreas, y varias clínicas privadas.

Sobre el personal sanitario, hay que decir que el ejercicio profesional de la medicina en Bilbao y en los pueblos más importantes se basaba en el ejercicio libre. Junto a estos médicos que tenían la consulta en su propia casa, muchos municipios disponían de médicos titulares. El ayuntamiento que mejor organizado tenía este cuerpo de médicos y la asistencia sanitaria, incluso para hacer frente a las grandes pandemias, fue el de Bilbao[6]. Gracias a este plantel de profesionales sanitarios y centros asistenciales, los resultados que se habían obtenido en el control de las enfermedades, en la primera mitad del siglo XX, habría que calificarlo como espectacular[7].

## OSASUN SAILA

Gerra egoeran sortu zen Eusko Jaurlaritza, eta beraz, borroka fronteak lehenetsi zituen oroz gain, Defentsa Sailaren mendeko Osasun Militarraren Buruzagitzari eman zion lehentasuna. Horrexegatik izan zen mugatuagoa Osasun Zibileko Sailaren jarduna. Hala eta guztiz ere, oso garrantzitsua izan zen gizarte zibilari eskaini zion arreta eta osteen beharrei eskaini zien laguntza.

Unión Republicana alderdiko beste militante bat, Carlos Labra, izendatu zuten Saileko Idazkari Nagusi, eta Mario Corderoren esku geratu zen Zuzendaritza Nagusia. Basurtoko Ospitaleko Kontsultategien Pabilioian egon zen Osasun Sailaren aurreneko egoitza, baina gero Escauriaza Jauregian egokitu zuten, Bilboko Kale Nagusiko azken zatian.

Osasun Sailak[8] egindako lanari dagokionez, hasteko, Osasun Militarraren Buruzagitzari eskualdatutako 52 gerra-ospitale txiki egokitu edo sortu zituzten berritik. Ospitale hauetaz arduratu ondoren, Bilbo Metropolitarreko beste osasun zentroetan jarri zuen bere arreta Sailak, tuberkulosiaren aurkako borrokan espezializatuta zeudenetan eta laguntza psikiatrikoan nahiz gaixoak berrezteko lanetan ziharduteneta, hain zuzen ere. Kapitulu honetan esan behar dugu ospitale gisa egokitu zutela "Habana" gerraontzia, eta San Sebastian doktorea izendatu zutela haren arduradun nagusi. Garrantzitsua izan zen osasun militarra hornitzeko osasun materialaren hornidura, hartarako bidaia egin baitzuten Ingalaterrara eta Frantziara. Bidaia horren inguruko txostena gorde da Salamancako Memoria Historikoaren Dokumentu Zentroan (PS Bilbao 39/28).

## CONSEJERÍA DE SANIDAD

La situación de guerra en la que surgió el Gobierno Vasco, hizo que su prioridad fueran los frentes de batalla, primando la Jefatura de Sanidad Militar que dependía de la Consejería de Defensa. Por esta razón la actuación de la Consejería de Sanidad Civil fue más limitada. Aún así su actividad, atendiendo a la población civil y apoyando las necesidades de las tropas, fue muy importante.

La Secretaría General del Departamento fue ocupada por otro militante de Unión Republicana, Carlos Labra, y la Dirección General quedó en manos de Mario Cordero. La primera sede de la Consejería de Sanidad estuvo en el Pabellón de Consultas del Hospital de Basurto para pasar, posteriormente, al palacio Escauriaza, en el tramo final de la Gran Vía de Bilbao.

Sobre la labor realizada por el Departamento de Sanidad[8] tenemos que empezar por el acondicionamiento o la nueva creación de 52 pequeños hospitales de guerra que fueron transferidos a la Jefatura Superior de Sanidad Militar. Una vez cedidos, el Departamento centró su atención en otros centros sanitarios del Bilbao Metropolitano, algunos de los cuales estaban especializados en lucha antituberculosa, asistencia psiquiátrica y en rehabilitación. En este capítulo hay que citar el acondicionamiento del buque "Habana" como hospital, quedando a cargo del mismo el Dr. San Sebastián. Fue importante el abastecimiento de material sanitario para surtir a la sanidad militar, realizando un viaje a Inglaterra y Francia sobre el que se conserva un informe en el Centro Documental de la Memoria Histórica de Salamanca (PS Bilbao 39/28).

Hiritar zibilak Babesteko Saila sortu zuten, eta Defentsarekin batean jardungo zuen honek bonba lehergarrien ondorioetatik ihes egiteko babeslekuak egokitzeko eta eraikitzeko lanetan. Gas toxikoekin hiritar zibilen aurka egin zitzaketen erasoetatik Zaintzeko Saila sortu zuten halaber; hainbat neurri aztertu zituen honek, baina neurriok bazterrera utzi behar izan zituzten bitartekorik ez zutelako. Estatistika eta Informazio Saila ere sortu zuten, hiritar zibilak hornitzeko Botika, esne kondentsatuaren hornidura bideratu zuten haurrentzat eta heldu gaixoentzat eta norbera sendatzeko poltsak egin zituzten, besteak beste.

Lorenzo Sebastianek[9] eskaintzen dizkigun datuen arabera, Espinosa "alferrik agertu zen Basurtoko Erizaintza Eskola Kultura Sailaren mendeko Euskal Unibertsitatean sartzeko proposamenaren aurka", Medikuntza Fakultatea sortzeko ahalegin handiak eginez. Osasun Sailak desegin egin zuen Bilboko Cruz Roja Española, eta Euskadiko Gurutze Gorria sortu zuen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako Aginduetan islatzen den bezala. Gorlizko Erietxeko haurrak Frantziara erbesteratzeko irteera ere antolatu zuten gerraren azken atalean.

Euskadin osasun-laguntza antolatu ahal izateko Osasun Sailean landu zuten organigrama laburbiltzen du gure Museoan dagoen dokumentu batek, urte haietan lan handia egin zuen Luis Bilbao Libano medikuak izenpetua hura. 1931n Genevan eta 1934an Budapesten egindako Landa Higieneari buruzko Konferentzia Europarrak emandako aholkuak zituen oinarri. Eskualdeetan banatzen zen lau eremuetako bakoitza eta eskualdeok, aldi berean, banako unita-

Se creó una Sección de Defensa de la población civil, colaborando con Defensa en la construcción y habilitación de refugios contra bombas explosivas; una Sección de Protección de la población civil de posibles ataques con gases tóxicos que sólo evaluó medidas, descartándolas por falta de medios; se creó una Sección de Estadística e Información; una Farmacia para surtir a la población civil; se promovió el abastecimiento de leche condensada para niños y adultos enfermos; la fabricación de bolsas para cura individual, etc.

Siguiendo con datos que nos aporta Lorenzo Sebastián[9], Espinosa "se opuso, infructuosamente, a que la Escuela de Enfermería de Basurto se integrase en la Universidad Vasca bajo la dependencia del Departamento de Cultura", participando activamente en la creación de la Facultad de Medicina. La Consejería de Sanidad disolvió la Cruz Roja Española en Bilbao, creando la Cruz Roja del País Vasco, como se puede seguir en las diferentes Ordenes publicadas en el Diario Oficial del País Vasco. En el tramo final de la contienda organizaron también la salida a Francia de los niños del Hospital de Gorliz .

Un documento depositado en nuestro Museo y firmado por otro médico que tuvo un destacado papel esos años, Luis Bilbao Libano, resume el organigrama sobre el que trabajaron en la Consejería para organizar la asistencia sanitaria en Euskadi. Se basaba en las recomendaciones de la Conferencia Europea de Higiene Rural celebrada en Ginebra en 1931 y en Budapest en 1934. Cada una de las cuatro regiones se dividía en comarcas y estas, a su

teetan. Bizkaiko eremuak Bilbo izan zuen gune nagusi, eta 6 unitate bereizi ziren bertan; Barakaldo, Balmaseda, Gernika, Durango, Galdakao-Igorre eta Amurrio. Eremu bakoitzeko Osasun Zuzendariaren ardurapean zeuden Higiene Zerbitzuak eta Laguntza Publikoa.

vez, en unidades primarias. La región de Bizkaia estaría centrada en Bilbao y contaría con 6 unidades: Barakaldo, Balmaseda, Gernika, Durango, Galdakano-Igorre y Amurrio. Del Director de Sanidad de cada región colgarían los Servicios de Higiene y de Asistencia Pública.

ORGANIGRAMA DE LA ORGANIZACION SANITARIA DEL PAIS VASCO(1937)




## OSASUN MILITARREKO BURUZAGITZA

Osatu bezain laster, Euskal Gudalostea antolatu zuen Eusko Jaurlaritzak: 45.000 gizon zituen, hiru sektoretan eta 60 batailoitan banatuak. Osasun-laguntza emateko, Osasun Militarreko

## JEFATURA DE SANIDAD MILITAR

Nada mas constituirse, el Gobierno Vasco creó el Ejército Vasco = Euskal Gudalostea, constituido por 45.000 hombres divididos en tres sectores y 60 batallones. Para su asistencia sanitaria

Buruzagitza sortu zuten Fernando Untzuetaren agindupean, 1937ko udaberrian argitaratutako *La Sanidad Militar en Euzkadi* liburuan ondo asko deskribatzen diren organigramarekin eta antolakuntzarekin.

Burtzeñako (Barakaldo) Munoa izeneko finkan eta eraikinean sortutako Osasun Kuartelean zentralizatu ziren Euskal Gudalostearen osasun zerbitzuak. 2.538 langile zeuzkan, horietatik 114 batailoietako osagileak, abangoardiako ospitaleetakoak eta laguntzaileak; 170 gaixozain; 398 erizain; 1.052 anda-eramaile; eta gainerakoak zamaltzainak, langile laguntzaileak, sukaldariak, administratzaileak, garraiolariak eta beste.

52 ospitaleetan 5.000 ohe zituzten guztira, bertako langileek zainduak. Hierarkikoki antolatu zituzten ospitale horiek, hauxe da, abangoardiako ospitaleak, osasun zerbitzuak emateko ospitaleak, ospitale handiak, ospitale nagusia eta eriondoan zeudenentzako erietxeak bereizi zituzten. Zerbitzuen, espezialitateen, laborategien, botika militarraren, estatistikaren eta beste aldagai batzuen garapenak garbi erakusten du ondo antolatuta zeudela osasun zerbitzu haiek[10].

## ERREPRESIOA ETA ERBESTERATZEA

Paul Prestonek bere Holocausto Español[11] ikaragarrian egiten duen bezala, ezin amai dezakegu azpimarratu gabe Euskal Herrian batez ere mediku, abokatu, arkitekto eta ingeniariak bezalako profesional liberalen aurka bideratu zela errepresioa. Medikuen artean, fusilatu egin zituzten Osasun Sailburu Alfredo Espinosa bera eta Osasun Militarreko Ikuskatzaile Nagusi José

se creó la Jefatura Superior de Sanidad Militar, bajo las órdenes de Fernando Untzueta, con un organigrama y una organización que se encuentran perfectamente descritos en el libro La Sanidad Militar en Euzkadi que se publicó en la primavera de 1937.

Los servicios de salud del ejército vasco se centralizaron en el Cuartel Sanitario que se creó en el edificio y finca denominadas Munoa, situado en Burtzeña (Barakaldo). El personal estaba formado por 2.538 hombres de los que 114 eran médicos de batallón, de hospitales de vanguardia y ayudantes; 170 practicantes; 398 enfermeros; 1.052 camilleros y el resto, acemileros, personal auxiliar, cocina, administración, transportes, etc.

Los 52 hospitales que contaban un total de 5.000 camas atendidos por su propio personal, se organizaron jerárquicamente en hospitales de vanguardia, hospitales médicos, grandes hospitales, hospital central y hospitales de convalecencia. El desarrollo de los servicios, las especialidades, laboratorio, farmacia militar, estadística, etc. nos indican una elaborada organización de estos servicios sanitarios[10].

## REPRESIÓN Y EXILIO

No podemos terminar, como también lo hace Paul Preston en su impresionante Holocausto Español[11], sin subrayar que la represión en el País Vasco se cebó con los profesionales liberales como médicos, abogados, arquitectos o ingenieros. Entre los médicos, fueron fusilados el propio Consejero de Sanidad, Alfredo Espinosa, el Inspector General de Sanidad Militar, José Luis

Luis Arenillas, eta borroka fronteetan erori ziren edo atzeragoardian akabatu zituzten beste osagile asko eta asko, Obieta, Elizondo, López Uranga, Cuartero eta Martínez Aristi doktoreak tartean. Espetxeratu eta zigor larriak jarri zizkieten mediku askori, Ignacio Mª Barrriolari[12], esate baterako, eta beste batzuk bota egin zituzten Basurtoko Ospitalean eta beste erakunde batzuetan betetzen zituzten lanpostuetatik.

Erbestea izan zen Euskadiko osasun zibil eta militarrean eta medikuntza Fakultatean lan egindako mediku eta erizain askoren helduleku bakarra. 1982an izandako Euskal Medikuen Nazioarteko Lehenengo Batzarrean Bengoa Doktoreak emandako datuen arabera, berrogeita hamar bat[13] mediku erbesteratu ziren gerra ostean Venezuela, Mexiko eta Argentinara. Beren ibilbide profesionala Amerikan eta Europan egin behar izan zuten mediku erbesteratu horien artean daude, hain zuzen ere, XX. mendeak eman dituen bi euskal mediku garrantzitsuenak, Julian de Ajuriaguerra eta Jose Maria Bengoa.

OHARRAK:

1. Penche J. Republicanos en Bilbao (1868-1937). Leioa, UPV/EHU, 2010.

2. La Sanidad Militar en Euzkadi. Bilbo, Eusko Jaurlaritza, 1937.

3. Gondra J, Villanueva A. Los hospitales civiles de Bilbao. Homenaje al Hospital de Basurto en su Centenario (1908-2008). Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza - Osasun Saila, 2008.

4. Villanueva A. El Sanatorio Marino de Gorliz. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1991.

Arenillas, y otros que cayeron en los frentes de batallas o fueron asesinados en la retaguardia como los Dr. Obieta, Elizondo, López Uranga, Cuartero, Martínez Aristi, etc. Muchos médicos sufrieron cárcel y gravísimas condenas como Ignacio Mª Barrriola[12], mientras que otros fueron expulsados de las plazas que ocupaban en el Hospital de Basurto y otras instituciones.

El exilio fue la única tabla de salvación para muchos médicos y enfermeras que colaboraron con la sanidad civil y militar de Euskadi y con la Facultad de Medicina. En la Primera Reunión Internacional de Médicos Vascos, celebrada en 1982, el Dr. Bengoa calculó que el número de médicos exiliados tras la guerra a Venezuela, México y Argentina fue de alrededor de medio centenar . Y entre esos médicos exiliados, que tuvieron que desarrollar su carrera profesional en América y en Europa, se encuentran precisamente los dos médicos vascos más importantes del siglo XX que son Julián de Ajuriaguerra y José María Bengoa.

NOTAS:

1. Penche J. Republicanos en Bilbao (1868-1937). Leioa, UPV/EHU, 2010.

2. La Sanidad Militar en Euzkadi. Bilbao, Gobierno Vasco, 1937.

3. Gondra J, Villanueva A. Los hospitales civiles de Bilbao. Homenaje al Hospital de Basurto en su Centenario (1908-2008). Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza - Osasun Saila, 2008.

4. Villanueva A. El Sanatorio Marino de Gorliz. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1991.

5. Lizarraga P. Vida y obra del doctor Ledo. Bilbao, Museo Vasco de Historia de la Medicina, 1983.

6. Gondra J, Erkoreka A. El Cuerpo Médico Municipal (1897-1937) y la pandemia de gripe española en Bilbao (1918-1920). Bidebarrieta 21, 2010, 139-152.

7. Gonzalez Portilla M et al. Hospital de Bilbao y transición sanitaria. Enfermedad y muerte en Vizcaya 1884-1926. Bilbo, Osakidetza - BBK, 1998.

8. "La gran obra realizada por el Departamento de Sanidad". Unión 1937ko apirilak 14.

9. Sebastian L. Alfredo Espinosa Orive (1903-1937). Detención, procesamiento y ejecución de un consejero del Gobierno Vasco. Sancho el Sabio 27, 2007, 213-244.

10. Erkoreka A. Del cuerpo de Sanidad Militar del Gobierno de Euzkadi (1936-1937) a la creación de Osakidetza (1980-1983). V Seminario Interdisciplinar de Bioética y Nutrición. Hambre cuando hay pan para todos. Jornadas de homenaje al profesor José María Bengoa Lecanda (1913-2010). Alacant, 2010.

11. Preston P. Odio y exterminio en la Guerra Civil y después. Barcelona, Debate, 2011.

12. Barriola IM. 19 condenados a muerte. Bilbo, Ediciones Vascas, 1978.

13. Erkoreka A. Médicos vascos exiliados en América en 1937. Jornada de Nutrición 1, 2010, 57-65.

5. Lizarraga P. Vida y obra del doctor Ledo. Bilbao, Museo Vasco de Historia de la Medicina, 1983.

6. Gondra J, Erkoreka A. El Cuerpo Médico Municipal (1897-1937) y la pandemia de gripe española en Bilbao (1918-1920). Bidebarrieta 21, 2010, 139-152.

7. Gonzalez Portilla M et al. Hospital de Bilbao y transición sanitaria. Enfermedad y muerte en Vizcaya 1884-1926. Bilbao, Osakidetza - BBK, 1998.

8. "La gran obra realizada por el Departamento de Sanidad". Unión 14 de abril de 1937.

9. Sebastian L. Alfredo Espinosa Orive (1903-1937). Detención, procesamiento y ejecución de un consejero del Gobierno Vasco. Sancho el Sabio 27, 2007, 213-244.

10. Erkoreka A. Del cuerpo de Sanidad Militar del Gobierno de Euzkadi (1936-1937) a la creación de Osakidetza (1980-1983). V Seminario Interdisciplinar de Bioética y Nutrición. Hambre cuando hay pan para todos. Jornadas de homenaje al profesor José María Bengoa Lecanda (1913-2010). Alicante, 2010.

11. Preston P. Odio y exterminio en la Guerra Civil y después. Barcelona, Debate, 2011.

12. Barriola IM. 19 condenados a muerte. Bilbao, Ediciones Vascas, 1978.

13. Erkoreka A. Médicos vascos exiliados en América en 1937. Jornada de Nutrición 1, 2010, 57-65.

ANTON ERKOREKA

Medikuntza Historiaren Euskal Museoa

ANTON ERKOREKA

Museo Vasco de Historia de la Medicina

# GORLIZKO ITSAS ERIETXEAREN EBAKUAZIOA

## ESPAINIAKO AZKEN GERRA ZIBILEKO GERTAERA

Gizaki zibilizatu guztiok uste dugu gerra den zentzugabekeria izugarri horretatik kanpo utzi behar direla haurrak. Espainiak 1936 eta 1939 bitartean bizi izan zuen gerra zibila, espainiarrek ehun urtean ezagutu zuten laugarrena, hain zuzen ere, gizarte espainiarrak XIX. mendetik bizi zuen enfrentamendu giroan aldi berean egin ziren oker tragiko batzuen ondorioa izan zen. Inoizko guda anker lazgarriena izan zen, inolaz ere, eta gerraondo luzeak, aldeen artean zatiketa eta desadostasun giroa ezaugarritu zuenak, larritu baizik ez zuen egoera hura.

Urtebete eskas iraun zuen gerrak Euskadin, 1936ko uztailaren 18tik ekainaren hondarreko egunetan Enkarterrietako azkeneko bazterrak okupatu ziren arte. Euskal Herrian bizi izan ziren gerra-gertaeren artean bada, haurren ebakuazioaren inguruan izaniko bizipenei dagokienez, gertakari guztiz interesgarri bat, Gorlizko Itsas Erietxean zeuden haurrak Frantzia aldera eraman zituztenekoak kontagai dituena.

Uztailaren 18ko matxinadaren ondorioz, alde batean geratu ziren Nafarroa eta Araba, Francoren aldeko Espainiaren barruan, eta bestean Gipuzkoa eta Bizkaia, Espainiako Errepublika-

# LA EVACUACION DEL SANATORIO MARINO DE GÓRLIZ

## UN EPISODIO DE LA ÚLTIMA GUERRA CIVIL ESPAÑOLA

Todos los hombres civilizados creemos que los niños deben ser colocados al margen del enorme disparate de la guerra. La guerra civil española de 1936 a 1939, el cuarto enfrentamiento entre españoles habido en el espacio de cien años, fue el resultado de la conjunción de trágicos errores cometidos en un ambiente de enfrentamiento social en el que vivía España desde el siglo XIX. Fue sin duda la más devastadora y cruel contienda que se ha padecido, agravada por una larga postguerra, caracterizada por la división y la alteración de la concordia entre la división y la alteración de la concordia entre españoles.

La guerra duró en Euskadi algo menos de un año, desde el 18 de Julio de 1936 hasta fines de Junio del año siguiente en que se ocupan los últimos pueblos de las Encartaciones. En su desarrollo en el País Vasco, hay uno episodio muy interesante que dentro de la evacuación infantil, corresponde al traslado a Francia del Sanatorio Marino de Górliz.

El estallido del 18 de Julio había separado a Navarra y Alava, que quedaron en la España de Franco, de Guipúzcoa y Vizcaya que per-

ri leial iraun zutenak. Mola jeneralak, armada frankisten buru nagusiak, burutan hartua zuen Nafarroako eta Gipuzkoako muga-pausu estrategikoak aurren-aurrenik okupatzea eta, eraso bizkor indartsu bati ekin ondoren, 1936ko irailean lortu zuen Bera, Behobia, Irun eta Donostiaz jabetzea. Astebete geroago barneratu zen Urolako bailarako lurretan, Ego eta Deba ibaien arteko bazterretara iritsi arteraino. Deba ibarreko lur malkartsuetan barrena aurrera egitea horren erraza ez zelarik, erasoa une batez pausatzea deliberatu zuen Molak, 1937ko udaberrian berriro indarrez ekin zion arte.

Herri zibilaren exodoa eragin zuten eraso haiek eta, haurrak eurekin eramanik, etxea utzi zuten familia osoek, Gipuzkoatik Bizkai alderako bidean haietako gehienak, eta herstura handian ezarri zuen egoera hark Euskadiko Gobernua, Errepublikako Gorteek 1936ko urrian onartu zuen Euskal Estatutuaren arabera sortua zena.

Koalizio-kabinetea izan zen gobernu hura, hauteskunde batzuetatik ez baina Errepublikari leial iraun zuten alderdi politikoen arteko hitzarmen batetik sortu baitzen. Orduz geroztik, gobernuaren egiteko nagusia izan zen gerra-premiei erantzutea, alde batetik, eta jarduera zibilak kudeatzea, bestetik, eta jendeari ahora zer eramana eta iheslariei non etzana eskaintzea ez zen batere lan erraza gertatu, itsas eskuadra frankistak Bilboko porturako, hau da, Euskadiko Gobernuak une batean kudea zezakeen portu bakarrerako bideak blokeaturik zeuzkala kontuan hartzen badugu.

1937ko martxoan ekin zion Molak erasoari berriro. Eusko Jaurlaritzaren kezka areagotu zuten

manecieron leales a la España republicana. Al general Mola, comandante de los ejércitos franquistas le interesaba ocupar rápidamente los estratégicos pasos fronterizos de Navarra y Guipúzcoa para lo que desarrolló una rápida ofensiva que culminará en Septiembre de 1936 con la ocupación de Vera, Behobia, Irún y San Sebastián y una semana más tarde del valle del Urola, llegándose a la divisoria de los rio Eo y Deva, cuya garganta, ofrecía un obstáculo importante para el avance de las tropas y que propició una pausa en la ofensiva que duró hasta la primavera de 1937.

Ello supuso el éxodo de poblaciones civiles, familias con niños, fundamentalmente de Guipúzcoa a Vizcaya, motivo de agobio para recién constituido Gobierno de Euskadi al amparo de la aprobación del Estatuto Vasco en Octubre de 1936 por las Cortes de la República.

Este gobierno es un gabinete de coalición, ya que no nace de unas elecciones, sino de un acuerdo de los partidos políticos que acataron la república que tuvo que dividir su trabajo entre la atención a la guerra y el resto de las actividades civiles, de las que el suministro de alimentos y el alojamiento de los refugiados fueron de sus tareas menos fáciles, ante el bloqueo que la escuadra franquista sometió al puerto de Bilbao, único del que se disponía.

La ofensiva se reinició en Marzo de 1937. El avance de las tropas y los bombardeos de Guernica y Durango avivan la preocupación del Gobierno. Ante las dificultades por el avituallamiento, la inseguridad ciudadana ante

tropa frankisten aurrerakadak eta Durango eta Gernikako bonbardaketek. Bizigaiak eskuratzeko zailtasunen, gerrak biztanleengan sorrarazi zuen segurtasun ezaren eta herri zibilak sentitzen zuen beldurraren aurrean, gorpuztu zen haurrak Frantzia, Belgika, Britainia Handi eta SESBera eramateko ideia.

Espainiaren Aldeko Batzordeko Lehendakari M. Amós Sabrás katedratiko sozialistak Espainiaren Parisko Enbaxadatik 1937ko urtarrilean eginiko eskaintzaren ondorioz iritsi zen lehen emaitza, eta lehen haur-espedizioa irten zen martxoan Bermeotik Donibane Lohizunera, handik Bordelen barrena Oleronera joateko. Esperientzia hartako fruitu onak kontuan harturik, zabalkunde handiagoko operazioak egitea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak, Jesus Maria Leizaola, Justizia eta Kultura sailburu nazionalistaren, Alfredo Espinosa, Osasuna sailburuaren eta Juan Gracia Gizarte Laguntzarako sailburu sozialistaren elkarlanari esker. Lan handi hura goraipatuko zuen Agirre lehendakariak Munduko Lehen Euskal Biltzarrean.

Halatan, 1937ko martxoaren eta ekainaren artean, hainbat haur-espedizio itsasoratu ziren Bizkaiko portuetatik aipaturiko herrialdeetarantz, adineko pertsona batzuk eta, zenbaitetan, amak lagun zituztela. Haiekin batean itsasoratu ziren irakasleak, osasun arloko langileak eta, EAJ alderdiak sustatutako espedizioetan, kapilauak.

Euskadiko Aldizkari Ofizialak ez ditu Gorlizko Erietxearen Ebakuaziorako prestakuntza-lanak aipatzen. Oso urria da haiei buruz topatu den dokumentazioa eta gerra ondoko lan orokorretan, hala nola Jose Antonio Agirreren edo

la guerra y el miedo de la población civil, nace la idea de la evacuación de la población infantil a Francia, Bélgica, Gran Bretaña y la URSS.

En Enero de 1937 hubo un ofrecimiento llegado de la Embajada española en París hecha por el catedrático socialista M. Amós Sabrás, Presidente de la Comisión de Ayuda a España, que en Marzo dio por fruto la salida de una pequeña expedición de niños desde Bermeo a San Juan de Luz y de aquí por Burdeos a Olerón. Los buenos resultados de esta experiencia animan al Gobierno Vasco a abordar una operación de más envergadura que se llevó a cabo gracias a la colaboración entre los nacionalistas Jesús Mª de Leizaola y Alfredo Espinosa y el socialista Juan Gracia, titulares de las Consejerías de Justicia y Cultura, Sanidad y Asistencia Social, labor resaltada por el lendakari Aguirre en el I Congreso Mundial Vasco.

Así entre Marzo y Junio de 1937 salen por los puertos vizcaínos a los países citados varias expediciones de niños, acompañados por algunas personas ancianas y en algún caso, de sus madres. Con ellos van maestros, personal sanitario, y en las promovidas por el PNV, capellanes.

El Boletín Oficial del País Vasco no cita los preparativos de la evacuación del Sanatorio de Górliz. La documentación encontrada es muy escasa y no hay mención en las obras generales como las Memorias de José Antonio Aguirre o del canónigo Onaindía ni en el opúsculo editado al efecto por la Diputación de Vizca-

Onaindia kalonjearen oroitzapen liburuetan ez da haien aipamenik egiten, ez eta Bizkaiko Aldundiak 1937ko uda-udazkenean xede horri begira argitaratu zuen idazlantxoan ere. Maiatzean hartuko zuten Gorliz husteko erabakia, Euzkadi, EAJaren egunkarian argitaraturiko ohar bati erreparatuta ondoriozta daitekeen bezala. Izan ere, ia segurutzat jo zuten ohar hartan Gorlizko haurrak Frantziara eramango zituztela, Goizeko Izarra yatean, hain zuzen ere.

Eusko Jaurlaritzaren Baionako Ordezkaritza arduratu zen Frantziaren aurreko gestioez, oso negoziazio zailak, espero zen bezala. Orduan, egun hemen ere eri hiesdunak hurbil edukitzeko aukeraren aurrean gertatzen den bezala, inongo herri ere ez zuen gogobetetzen haur tuberkulosidunak hartzeko ideiak, tuberkulosi mota hura, hezurretakoa, kutsatzeko arrisku txikien duena bada ere. Beraz, itsasertzean leku bat ezin lortuko zuela ikusirik, Sain-Christau izeneko mendi-bainutegi bat onartu behar izan zuen Eusko Jaurlaritzak. Aspeko haranean, Behe Pirinioetan, zegoen Saint-Christau, itsas mailatik 250 metro gora, Moilh-Arrouy mendiaren oinetan eta Baionatik 150 kilometrora, Biarnoko Oloroe-Donamaria hiritik hurbil. Hau da, garai hartan hezurretako tuberkulosia artatzeko egiten ziren gomendioetatik juxtu antipodetan zegoen instalazio bat.

Ebakuaziorako aukera haren aurrean, hala jokatzeko baimena eman zuten erietxean zeuden 227 haurren gurasoek, eta haiekin batera eraman zituzten halaber Plentziako Erietxean zeuden 23 haur, bai eta, alta emanak zirelarik, orduko berriro gurasoen etxean zeuden beste batzuk ere.

ya en el verano – otoño de 1937. La decisión de evacuar Górliz se debió tomar en Mayo si hacemos caso de una nota publicada en el periódico Euzkadi, órgano del PNV, en el que se anuncia *con probabilidades casi seguras* que los niños de Górliz serán trasladados a Francia a bordo del yate *Goizeko Izarra*.

Las gestiones en Francia corrieron a cargo de la Delegación del Gobierno Vasco en Bayona y naturalmente fueron muy difíciles. Entonces, como ocurre ahora aquí mismo que a nadie le apetece tener cerca enfermos sidosos, la idea de alojar niños tuberculosos, aunque fueran de la variedad menos contagiosa, la ósea, no ilusionaba a ningún pueblo, por lo que el Gobierno Vasco al no poder conseguir un establecimiento en la orilla del mar, tuvo que contentarse con el balneario de altura de Saint – Christau, en el valle de Aspe, bajos Pirineos, a 250 metros de altitud, al pie del monte Moilh – Arrouy a 150 kilómetros de Bayona, cerca de Oleron – Saint – Marie. Es decir, una instalación situada en los antípodas de las recomendaciones de la época para el tratamiento de la tuberculosis ósea.

Los familiares de los niños, ante esta posibilidad de evacuación es aceptada por los padres de 227 ingresados, a los que se agregaron 23 niños del Sanatorio de Plencia y algunos que, habían sido dados de alta y ya se encontraban en casa de sus padres.

El día 12 de Junio, Radio Emisora Bilbaína da una noticia falsa: Górliz había sido bombardeada por la aviación de Franco, dato que recoge el vespertino *La Tarde*. El periódico

Ekainaren 12an, albiste faltsu bat eman zuen Radio Emisora Bilbaína irratiak: Francoren hegazkinek Gorliz bonbardatu bide zuten, eta berri hura bera eman zuen La Tarde arratsaldeko egunkariak. Biharamunean, Gorlizko erietxearen huste lanak bizkortzeko eskatu zuen Euzkadi egunkari nazionalistak. Egun hartan berean gezurtatu zuen La Tarde egunkariak aurreko egunean bonbardaketaz argitaraturiko albistea.

Erietxea guztiz husteko lanak hartu ziren aintzat. Haurrak atera zituzten, eta haiekin batera sendagileak, Karitate Ahizpak, erizainak, kirurgia, farmazia eta erradiologia tresneria, sukaldeko tresnak, liburutegia, eta abar. Topaturiko dokumentuen artean bada ohar labur bat, Plentziako Gerra Sektoreko Ordezkariak sinatua, Gorlizko Erietxearen behi azienda erretiratzeko agindu baten berri ematen duena. Bi idi eta bi behi zeuzkan Erietxeak Urezarantza baserrian. Erietxetik atera zuten guztiaren artean ageri dira lau abelburu horiek, baina ebakuatu zituzten haurretatik bakar batek ere ez du horrelakorik ikusi izana gogoratzen, benetan hala gertatu izan balitz oso gauza bitxia bazatekeen ere. Ez baitzen eguneroko zerbait izango Ramon de la Sotaren yatean lau abelbururekin topo egitea. Beste norabait eramango zituzketen.

Ekainaren 12an egin zuen Goizeko Izarrak aurreneko garraialdia Baionara, Santurtzitik hain zuzen ere, eta Osasun Sailburu Alfredo Espinosak ere egin zuen bidaia hura, itzulerakoan berriro Bilboratzeko. Erietxeko sendagile Luis Larrinagak eta Luis Goirik txandaka egin zituzten bi bidaiak, eta gisa berean jokatu zuten hemezortzi Karitate Ahizpek, hamabi erizainek eta beste langile batek, Erietxetik haurrekin batean mugiarazi zituzten enplegatuek alegia.

nacionalista, *Euzkadi*, al día siguiente pide al Gobierno que acelere la evacuación de Górliz. Aquel mismo día, *La Tarde* desmiente la noticia dada el día anterior sobre el bombardeo.

La evacuación se plantea de una forma completa. Salen los niños, los médicos, las Hermanas de la Caridad, el personal auxiliar, el instrumental quirúrgico, farmacéutico y radiológico, menaje de cocina, biblioteca, etc. Entre la documentación encontrada hay una escueta nota del Delegado de Plaza del Sector de Guerra de Plencia que dice que se evacue el ganado vacuno que posee el Sanatorio de Górliz. Este tenía dos bueyes y dos vacas en uno de sus caseríos en Uresaranses. Estos cuatro animales figuran entre lo que salió del Sanatorio, pero nadie de los evacuados recuerda este hecho que naturalmente de haberse producido debía haber sido muy llamativo. Ahí es nada tener cuatro cabezas de ganado vacuno en el yate de Ramón de la Sota. Es de suponer que fueron llevados a otros destinos.

El primer traslado a Bayona lo hace el *Goizeko Izarra* el 12 de Junio, desde Santurce, acompañado por el Consejero de Sanidad, Alfredo Espinosa, quien retorna en el viaje de vuelta. Los médicos del Sanatorio, Luis Larrínaga y Luis Goiri se repartieron los dos viajes al igual que las 18 Hermanas de la Caridad, las doce auxiliares y el empleado que formaron la parte evacuada del personal del Sanatorio.

La estancia en los hoteles del balneario francés no duró mucho tiempo. La mayoría de los niños la recuerdan como unas alegres vacaciones, aunque a once de ellos entre 9 y 14

Ez zuen luze jo bainutegi frantses hartako hoteletako egonaldiak. Oporraldi alai batzuen moduan gogoratzen dute haur gehienek, haietako batzuek, 9 eta 14 urte bitarteko adina zuten hamaika haurrek hain zuzen ere, sentsazio hori bera jasoko ez zuten arren: ihesaldia prestatu zuten etxera itzultzeko eta ogi-mokorrak bildu zituzten bidaian zer jana edukitzeko. Txikienak Ahizpa haietako bati isilpean eginiko aitorpenak utzi zuen biderik gabe proiektua. Abenturazale gaztetxo haien izenak gorde ditu historia txikiak: Jaime Lledó Gorostiza, Jose Luis Goicoechea Ichaso, José Iturbe, Jose Luis eta Jesus Aurteneche Aguirre anaiak, Juan Jose Bedoya Aguirre, José Antonio Gutiérrez, Carlos Narvaiza Azpitarte, Fernando García Azcolizaga, Exiquio Pérez, Luis Deusto eta XX. Ahantzi egingo zuten beste horren izena adierazten dute ixek.

Francoren tropak Bilbon sartu ondoren, Saint-Christaura eramaniko haurrei buruzkoa da Bizkaiko Aldundi berriak hartu zituen lehen erabakietako bat. Haurrak Gorlizera itzul zitezen nahi zuten gurasoek espresuki adierazi behar izan zuten hala nahi zutela Tor jaunaren aurrean. Frantziako kontsula zen Tor jauna Zaragozan eta bitartekaritza-lanak bete zituen negoziazio haietan. 1937ko abuztuaren 7an iritsi zen Saint-Christaura Bizkaiko lurraldeko Ongintza Ikuskatzaile Malaxechevarria jaunarekin, Mugen Ikuskatzaile Buru Troncoso jaunarekin eta Erietxeko zuzendari berriarekin, Ornilla doktorearekin. Egun hartan bertan eratu zen aurreneko espedizioa, 109 haurrek osatua. Haiekin batera joan ziren Karitate Ahizpa guztiak eta hamaika erizain. Haurrei lagundu zieten, halaber, Mugen Ikuskatzailearen emazteak eta Maseda jaunak, Adin Txikien Babes eta Berraberriratzera-

años no les debió parecer tanto porque planearon una fuga para volver su casa haciendo acopio de mendrugos de pan como víveres de viaje. Una confidencia del más pequeño a una de las Hermanas abortó el proyecto. La pequeña historia guarda el nombre de estos alevines de aventureros: Fueron Jaime Lledó Gorostiza, José Luis Goicoechea Ichaso, José Iturbe, los hermanos José Luis y Jesús Aurteneche Aguirre, Juan José Bedoya Aguirre, José Antonio Gutiérrez, Carlos Narvaiza Azpitarte, Fernando García Azcolizaga, Exiquio Pérez, Luis Deusto y XX. Las equis corresponden a un posible olvidado.

Al entrar las tropas de Franco en Bilbao, uno de los primeros acuerdos que toma la nueva Diputación de Vizcaya es tratar a los niños emigrados en Saint-Christau. Los padres que querían que sus hijos volvieran a Górliz tuvieron que hacer declaración expresa de su deseo ante M. Tor, Cónsul francés en Zaragoza, que obró de intermediario en estas negociaciones. M. Tor llegó a Saint-Christau el 7 de Agosto de 1937 acompañado el Inspector provincial de Beneficencia, Sr. Malaxechevarría, el Comandante Inspector de Fronteras, Sr. Troncoso, y el nuevo Director del Sanatorio, Dr. Ornilla. Aquel mismo día se formó una expedición formada por 109 niños, todas las Hermanas de la Caridad y 11 auxiliares de enfermería. Acompañaban a los niños, la esposa del Inspector de fronteras, y el Delegado Especial para la Protección y Repatriación de Menores, Sr. Maseda. En la frontera les recibieron las organizaciones juveniles de Falange Española. En su viaje en los Ferrocarriles Vascongados

ko Ordezkari Berezia zenak. Harrera egin zieten mugan Falange Española erakundeko gazte taldeek. Ferrocarriles Vascongados burdinbide konpainiako trenean egin zuten ondoren bidaia, eta harrera-ekitaldiak eta opariak egin zizkieten geltoki guztietan. Bilbon, Gobernadore Zibilak, Aldun Nagusiak eta Alkateak egin zieten harrera. Gorlizera berreraman zituzten berehalakoan haur guztiak. Espedizio honetan berean, Saint-Christaura eramaniko 100 ohe ere itzuli zituzten, ez ordea gainerako altzariak, kirurgia tresneria, liburutegia eta kapera.

Berck-Plage herriko erietxera eraman zituzten gainerako 165 haurrak, zortzi erizain, kapilau bat eta sendagile bat lagun zituztela. 95.000 libera ordaindu zituen Eusko Jaurlaritzak egonaldi harengatik. 1938an, haur haietako 92 eraman zituzten Donibane Garaziko haur kolonia batera, alta jaso ondoren. Frantzian gelditu ziren haur haietako 76 bi espediziotan itzuli ziren Espainiara, Berck-Plageko erietxea 1939ko abuztuaren 30ean, II. Mundu Gerra hasi baino bi egun lehenago, utzi eta gero. Gainekoa besterik ez zutela itzuli ziren guztiak eta Gorlizera eraman zituzten berehala. Horrenbestez bukatu zen Gorlizko haurren ebakuazioa. Hamar hildako izan ziren, 1937 eta 1939 bitartean, Berck-Plagen gelditu ziren haurren artean, eta Gorlizera itzulitakoan hil zen beste bat. Saint-Christautik zuzenean itzuli zirenetatik, handik gutxira hil zen bat.

1939ko martxoan, frankistak Kataluniako frontean guztiz nagusitu ondoren, Granollersera jo zuen Ornilla doktoreak hiri katalan hartan Guernica izenaz jarduna zen Gerra Ospitale bateko medikuntza material eta jantzien kontu egitera. Hiru hipotesi egin genitzake Gorliztik atera eta

hubo recibimientos y obsequios en todas las estaciones. En Bilbao los recibió el Gobernador Civil, el presidente de la Diputación y el Alcalde de Bilbao. Los niños fueron reingresados en Górliz inmediatamente. Con esta expedición vuelve una dotación incompleta de 100 camas, quedando atrás todo el resto del material mobiliario, el instrumental quirúrgico, biblioteca y capilla.

Los 165 niños restantes fueron llevados previamente al Sanatorio de Berck - Plage acompañados por ocho enfermeras, un capellán y un médico. Su asistencia allí costó 95.000 francos al Gobierno Vasco. En 1938, 92 de estos niños fueron dados de alta y trasladados a una colonia infantil en Saint Jean de Pied de Port. De los niños que quedaron en Francia, 76 vuelven a España en dos expediciones el 30 de Agosto de 1939, dos días antes de que se declare la II Guerra Mundial. Todos vuelven prácticamente con lo puesto y reingresan inmediatamente en Gorliz. Así se cierra la evacuación de los niños de Górliz. Su costo fueron diez defunciones entre 1937 y 1939 en los niños que quedaron en Berck Plage y uno al llegar a Górliz. De los que volvieron directamente desde Saint Christau, uno murió en poco tiempo.

En Marzo de 1939, poco después de liquidado el frente de Cataluña, el Dr. Ornilla marcha a Granollers para hacerse cargo de una serie de material médico y ropas procedentes de un Hospital de Guerra denominado Guernica que había funcionado en aquella ciudad catalana. Sobre el material que salió de Górliz y no retornó podemos suponer tres hipótesis: 1ª,

itzuli ez zen materialari buruz: Lehena, haurrekin batean eramango zuten Berck-Plagera, hango erietxea ona eta ongi hornitua bazen ere, ez baitzioten material hari muzin egingo. Bigarrena, Eusko Jaurlaritzak Biarrizko La Roseraie etxean muntatu zuen Ospitalea hornitzeko erabiliko zuten. Hirugarrena, Espainia errepublikazaleko ospitale batera, Granollersekora adibidez, eramango zuten Frantzian barrena. Azkeneko hau da, agian, aukera gutxien dituen hipotesia.

Hauxe esan dezagun, konklusio gisa:

1.- Eusko Jaurlaritzak 1937an, haurrak gerrako gertalekuetatik urrun edukitzeagatik, bideratu zuen ebakuazio-programaren beste kapitulu bat da Gorlizko Erietxeko haurren ebakuazioa.

2.- Bi etapa izan zituen ebakuazio-bidaiak: itsasoz lehenengoa, lehorreko bidez bigarrena. Aurrenekoan, ezinbestekoa izan zen itsasbidea, Gipuzkoako lurralde osoa Francoren armadaren esku zegoelarik, itxia baitzen Irun-Behobian barnako bidea. Lehorreko bidez egin zen bigarren etapa, Baionatik Saint-Christauko erietxeraino.

3.- Saint-Christauko erietxea ez zen Gorlizko haurrentzat egokia, goi mendiko instalazioetan biriketako tuberkulosia artatzen baitzen, ez ordea osteoartikularra edo hezurretakoa.

que fuera con los niños a Berck – Plage, que aunque era una buena instalación hospitalaria y bien dotada, no haría ascos a una nueva aportación. 2º, que se destinara a dotar el Hospital que el Gobierno Vasco montó en la finca La Roseraire, de Biarritz y 3º, que fuera, a través de Francia, a un hospital de la España republicana, como el de Granollers, lo que es lo menos posible.

Como conclusiones podemos afirmar que:

1º.- La evacuación de los niños del Sanatorio de Górliz debe entenderse como un capítulo más de la evacuación infantil llevada a cabo por el Gobierno Vasco de 1937 para alejar a los niños del escenario de la guerra.

2º.- El viaje de la evacuación tuvo dos etapas, una por vía marítima y otra por vía terrestre. La primera, desde Santurce hasta Bayona, fue obligada por no tener acceso libre a la frontera de Irún-Behovia al estar ocupada por el Ejercito de Franco toda la provincia de Guipúzcoa. La segunda etapa desde Bayona al Sanatorio de Saint-Christau se hizo por transporte terrestre.

3º.- El Sanatorio de Saint-Christau no era adecuado para los niños de Górliz ya que las instalaciones de alta montaña se dedicaban la tuberculosis pulmonar y no para la osteoar-

Onartu behar izan zuen, hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak, haurrentzako instalazio egokirik ez zuelako eta toki batzuetan haur eri haiek hartzeko aukeraren kontra azaldu zirelako.

4.- Armada frankistak Bilbo hartu ondoren Bizkaian osatu zen aldundi berriak berehala ekin zien haurrak itzultzeko tramiteei. Tor jaunak, Frantziak Zaragozan zuen kontsulak, egin zituen bitartekaritza-lanak eta haren aurrean berretsi behar izan zuten gurasoek beren haurrak itzul zitezela nahi zutela.

5.- Zatika baizik ez ziren haurrak itzuli, ez baitziren guztiak batera eta berehala berraberriratu. II. Mundu Gerra hasi baino egun batzuk lehenagora arte ez ziren itzuli Frantzian gelditu zirenen erdiak.

ANTONIO VILLANUEVA EDO
Bilboko Mediku Zientzien Akademia

ticular. El gobierno vasco tuvo que aceptarla por no tener una instalación ad hoc para los niños y por otro lado por la reacción negativa en algunos casos para acoger a estos enfermos.

4º.- La nueva diputación de Vizcaya nacida tras la toma de Bilbao por el ejército franquista, inició inmediatamente los tramites para el regreso de los niños, que estuvo supervisado por M. Tor, cónsul de Francia en Zaragoza, ante el que los padres tuvieron que expresar su voluntad con respecto al regreso de los niños.

5º.- La vuelta de los niños es muy fragmentada, ya que no todos vuelven inmediatamente. De aquellos que quedaron en Francia algo menos de la mitad regresaron en los días previos a la declaración de la II Guerra Mundial.

ANTONIO VILLANUEVA EDO
Academia de Ciencias Médicas de Bilbao.

# ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA
# FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA

## AGIRITEGIAK ETA DOKUMENTAZIO ZENTROAK
## ARCHIVOS Y CENTROS DE DOCUMENTACIÓN

Archivo Histórico Provincial de Álava

Archivo Tribunal Territorial IV en Ferrol

Centro Documental de la Memoria Histórica

Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentrua / Centro del Patrimonio Documental de Euskadi

Vitoria-Gasteizko Erregistro Zibila / Registro Civil de Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz

## GARAIKO EGUNKARIAK ETA ARGITALPENAK
## DIARIOS Y PUBLICACIONES DE LA ÉPOCA

*ABC*. Madrid y Sevilla

*Boletín de Bilbao*. Bilbao

*El Liberal*. Bilbao

*El Noticiero Bilbaíno*. Bilbao

*El Pueblo Vasco*. Bilbao

*Euzkadi*. Bilbao

*Euzko Deya*. París y Buenos Aires

*La Vanguardia*. Barcelona

*La Voz de España*. Donostia-San Sebastián

*Unidad*. San Sebastián

*Unión. Diario Republicano*. Bilbao

# BIBLIOGRAFIA
# BIBLIOGRAFÍA


AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba: *Bilbao desde sus alcaldes. Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución democrática y social (1902-1937)*. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, 2003.

ANASAGASTI, Iñaki y SAN SEBASTIÁN, Koldo: *Alfredo Espinosa. Eusko Jaurlaritzaren lehen Kontseilaria Osasugintzan - Primer Consejero de Sanidad del Gobierno Vasco 1903-1937*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, 1981.

AVILÉS FARRÉ, Juan: *La izquierda burguesa en la II República*. Madrid: Comunidad de Madrid, 2006.

BERMEJO MARTÍN, Francisco: *La II República en Logroño. Elecciones y contexto político*. Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 1984.

ELORDUY JAUREGUI, Juan Bernardo: "Las fuerzas políticas republicanas ante el Estatuto Vasco en el escenario político vizcaíno, 1931-1933". *Muga*, 82 (1992), pp. 17-22.

ELORDUY JAUREGUI, Juan Bernardo: "El republicanismo en el País Vasco durante la II República". *Cuadernos de Alzate*, 27 (2002), pp. 75-88.

GARRIDO YEROBI, Iñaki y LECUONA ILUNDAIN, Aitziber: *La raíces del árbol en el exilio. Las biografías de los consejeros del primer Gobierno de Euzkadi*. Oñate: IVAP/HAEE, 2006.

GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El Lehendakari Aguirre y sus gobiernos: de la guerra civil al exilio – Agirre lehendakaria era haren gobernuak: gerra zibilatik erbestera*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco, 2010.

GRANJA SAINZ, José Luis de la: *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*. Madrid: Siglo XXI, 2008

GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*. Madrid: Tecnos, 2007.

LANDA MONTENEGRO, Carmelo: "Alfredo Espinosa (1903-1937)", en VV.AA.: *Espetxean. Semilla de libertad*. Bilbao: Fundación Sabino Arana, 1998.

PASTOR MARTÍNEZ, Roberto: "La Rioja y la insurrección libertaria riojana de 1933". *Cuadernos de Investigación: Historia*, T. 6 (1980), pp. 115-133.

PENCHE GONZÁLEZ, Jon: *Republicanos en Bilbao (1868-1937)*. Bilbao: UPV/EHU, 2010.

PENCHE GONZÁLEZ, Jon: "La República Foral: los republicanos ante la cuestión vasca". *Memoria y Civilización*, nº 12 (2009), pp. 193-215.

RIVERA BLANCO, Antonio: "Diario de D.A.M* de la Guerra Civil en Vitoria desde el 6 de marzo de 1937 al 26 de junio de 1938". *Cuadernos de Cultura*, nº 4 (1995), pp. 105-119.

ROMAÑA ARTEAGA, José Miguel: *Historia de la guerra naval en Euskadi*. Etxebarri: Editorial Amigos del Libro Vasco, 1984-1985.

SEBASTIÁN GARCÍA, Lorenzo: "Alfredo Espinosa Orive (1903-1937). Detención, procesamiento y ejecución de un consejero del Gobierno Vasco". *Sancho el Sabio*, 27 (2007), pp. 213-244.

UNTZETA, Fernando de (dir.): *La sanidad militar en Euzkadi*. Talleres gráficos Jesús Álvarez, 1937.

VILLANUEVA EDO, Antonio: *El sanatorio marino de Górliz*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia, 1991.

ZABALA ALLENDE, Federico: *El Gobierno de Euzkadi y su labor legislativa, 1936-1937*. Oñati: IVAP/HAEE, 1986.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO